


**GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO
GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA
IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEA**

UDAL GAIAK BILDUMA



**GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO
GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA
IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEA**

Vitoria-Gasteiz, 2016

Argitaratzailea: Vitoria-Gasteizko Udala

Maketazioa: Komunikazio eta Protokolo Bulegoa

Inprimatzailea:

L. G.:

AURKEZPENA.....	7
1. ZIOEN ADIERAZPENA.....	15
1.1. Aurrekariak.....	15
1.2. Kontratazio publiko estrategikoa: efizientzia, iraunkortasuna eta gardentasuna.....	16
1.3. Klausula sozialen eta ingurumen-arlokoen definizioa.....	18
1.4. Iraunkortasuna Gasteizko Udalaren kontratazioaren testuinguruan kokatzea.....	19
1.5. Justifikazio juridikoa.....	20
2. XEDAPEN OROKORRAK.....	23
2.1. Xedea eta aplikazio-eremua.....	23
2.2. Aplikazio-irizpideak.....	24
2.3. Erosketa eta Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra Egiteko Plana: EKIP.....	24
2.4. Merkatu babestuko nitxoak.....	26
2.5. Ezarpen Plana.....	27
2.5.1. Helburuak.....	27
2.5.2. Bitartekoak.....	27
2.6. Ebaluazioa eta jarraipena:.....	27
2.6.1. Batzorde Teknikoaren helburuak, osaera eta funtzioak.....	27
2.6.2. Informazioa.....	29
3. PRESTAKETA-FASEA.....	30
3.1. Kontratazio-dosierrari hasiera emateko txostena.....	30
3.2. Kontratuaren xedea.....	30
3.3. Zehapenak: klausula sozialak eta ingurumen-arlokoak ez betetzearen ondorioa.....	31
3.4. Preskripzio teknikoak:.....	31
3.4.1. Sozialak.....	31
3.4.2. Ingurumen-izaerakoak.....	32
3.5. Kaudimen teknikoa.....	33
3.5.1. Soziala.....	33
3.5.2. Ingurumen-izaerakoak.....	34
3.5.3. Hizkuntza-izaerakoak.....	34
3.6. Kontratu erreserbatuak.....	35

4. ESLEIPEN-FASEA	37
4.1. Esleitzeko irizpideak	
4.1.1. Esleitzeko irizpide sozialak.	37
4.1.1.1. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzea.	37
4.1.1.2. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonek enplegarritasuna hobetzea.	38
4.1.1.3. Genero-berdintasunaren alorreko irizpideak.	38
4.1.1.4. Bidezko Merkataritzako irizpideak.	39
4.1.2. Esleitzeko ingurumen-irizpideak.	40
4.2. Lehenetasun-irizpideak	42
4.2.1. Plantillaren barruan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonak dituzten enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak kontratatzea.	42
4.2.2. Bidezko Merkataritzako alternatiba duten produktuak kontratatzea.	43
 5. GAUZATZE ALDIA	 44
5.1. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak.	44
5.1.1. Kontratua gauzatzeko baldintza sozialak.	44
5.1.1.1. Enpleguari lotutako lan-baldintzak.	45
5.1.1.2. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonek enplegua sortzea.	45
5.1.1.3. Kontratua gauzatzeko genero-berdintasunaren alorreko baldintzak.	47
5.1.1.4. Bidezko Merkataritzako produktuak txertatzea.	48
5.1.2. Kontratua gauzatzeko ingurumen-baldintzak.	48
5.1.3. Kontratazio alorreko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, Gasteizko Udalean (Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana, 2013-2017).	49
 ERANSKINAK	 53
I. Lehenetasuneko kolektiboak.	54
II. Irizpide eta betebeharrak sozialekiko konpromiso-adierazpena.	56
III. Lan-merkatuan egoerarik txarrean dauden pertsonek kontratazioari eta gizarteratze eta laneratzeari dagokienez hartutako betebeharrak eta konpromisoen protokoloa.	58
IV. Erosketa eta kontratazio berde edo ekologikorako material lagungarriak.	60

AURKEZPENA

Legegintzaldi honetako hasiera-hasieratik, Udal Gobernu hau oso zuzen inplikaturik egon da gizartearekiko kontratazio arduratsua eta iraunkorra martxan jartzeko prozesuan, guretzat hori oinarritzeko urratsa delako baldin eta gizarte hobea lortu nahi badugu. Uztailean, eta gero-ra Osoko bilkurak onartuta, talde politikoei aurkeztutako Jarraibideak jauzi kualitatiboa dakar udal kontratazioan gizarte klausulak sartzeari dagokionez, azpimarratu egiten baitu genero, bidezko merkataritza eta jasangarritasuneko irizpideak ere sartzeak duen garrantzia.

Gasteizko Udalaren kontratazioa bazez hobekuntzak txertatzen ondasunak erosteko edo obra eta zerbitzuak esleitzeko prozesuetan, baina gizartearekiko kontratazio arduratsua eta iraunkorra haratago doa, enplegu duina eta kalitatekoa sortzeko funtsezko elementu bihurtzen zaigulako.

Udalbatzaren ahobatezko borondate horrekin, Erakunde adierazpenaren bitartez sinatuta, Udalak eta udal sozietate publikoek konpromisoa hartzen dute haien erosketa operazioetan eta kontratazio prozesuetan jasangarritasun hirukoitzaren printzipioa aplikatzeko: soziala, ekonomikoa eta ingurumenarena. Udalaren kontratazioa bidezkoagoa bada, berdintasunari eta integrazioari gehiago erreparatzen badie eta, gainera, emakumeen enpleguaren baldintzak hobetzeko eta erosketa etikoaren bitartez desorekak zuzentzeko eta ingurumen-inpaktua gutxitzeko baliagarria bada, eredu ekonomiko hobea sustatuko dugu, eta udalerriko enpresei bidea erakutsiko.

Orain arte udal teknikariek eta gizarte eragileek egin duten lanari esker garatu ahal izan da Gasteizko Udalean kontratazioak modu iraunkor eta gizartearekiko arduratsuan egiteko Jarraibidea. Kontratazio mota horrek lau esku-hartze arlo nagusi izango ditu: gizartea (laneratzea, gizarte inklusioa, ekonomia soziala, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, hizkuntza irizpideak, ahuldade egoeran dauden pertsonen lan-baldintzak hobetzea); generoa (emakumeak lan-merkatuan sartzea, emakumeen lan osasuna, kontziliazioa, jazarpenaren kontrako borroka, oreka erabakiak hartzea); bidezko merkataritza (Erosketa Publiko Etikorako irizpideak eta bidezko merkataritzaren produktuak erostea) eta ingurumena (salgaiaren, obraren edo zerbitzuaren bizitza-zikloan ingurumen eragina gutxitzeko betekizunak eta kontratazio baldintzak).

Hurrengo zeregina udalaren kontratazioaren alor guztietan Jarraibidea garatzea izango da. Horretarako, argitalpen hau bezalako zabalkunde lanak egingo dira, langileei prestakuntza emango zaie, eta kontratistei, Enplegu Zentro Bereziei, Gizarteratze Enpresei eta Irabazi-Asmorik Gabeko Erakundeiei helaraziko zaie Jarraibidea.

Bene-benetan eskertzen dut adostasunera iritsi ahal izateko guztiek egindako ahalegina, horri esker jarri baita martxan Jarraibide hau; guztiz sinetsita nagoelako Jarraibidea garatuz gero gizarte askeagoa eta bidezkoagoa lortuko dugula.

Gorka Urtaran Agirre
Vitoria-Gasteizko alkatea



GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEA onestea.

Ogasun Batzordearen mendeko lantalde bat sortzea erabaki zuen udalbatzak 2013ko urriaren 18an, udal teknikariek klausula sozialen eta ingurumen-klausulen arloan egindako lanak azter zitzan, eta klausula horiek Gasteizko Udalaren taldearen kontratazio-prozesuetan aplikatzeko proposamenak egin.

Indarrean dagoen klausula sozialen jarraibidearen jarraipena egiteaz arduratzen den batzorde teknikoak lantalde horren enkargua jaso zuen, Udalaren kontratazioan klausula sozialak, ingurumenaren alorrekoak, genero-berdintasunaren alorrekoak eta bidezko merkataritzaren alorrekoak gehitzeko, eta Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidearen lehen zirriborroa landu zuen, zein 2014ko abenduan aurkeztu baitzitzaizen talde politikoei, gizarte-eragileei eta udal zerbitzuei, eta orobat zabaldu zen ekarpenak egiteko epea. Ekarpene horiek aztertu eta txostena egin zelarik, bigarren zirriborrora ekarri ziren gehienak, eta joan den uztailearen 30ean aurkeztu zitzaizen hori egungo udalbatzako talde politikoei.

Aholkularitza Juridikoak, kontu-hartzaileak eta Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak egindako txosten juridikoak aintzat harturik, egokitu egin zen dokumentu hori joan den iraillean, eta burututzat jo zen proposamen teknikoak, zeinen oinarriak ondoren laburki azaltzen baitira.

Kontratazio eta erosketa publiko iraunkorraren barruan, sektore publikoak, bere kontratazio- eta erosketa-jardueren bitartez, zeregin eredugarria bete behar du iraunkortasunari dagokionez.

Administrazio-kontratazioaren helburu eta printzipioak beste arlo batzuetako politikekin modu egoki eta eraginkorrean uztartuko dituen sistema bat egituratzeko aukera ematea du helburu jarraibideak, hala nola iraunkortasunaren alorrekoekin, enpleguaren eta gizarteratzearen alorrekoekin, ingurumenaren alorrekoekin, genero-berdintasunaren alorrekoekin edo garapenerako lankidetzaren alorrekoekin.

Kontratazio publikoa modu aktiboan erabiliko da Udalaren estrategia, plan eta proiektu sozialetan nahiz ingurumenaren eta hizkuntzaren alorrekoetan finkatutako helburuak lortzeko, estrategikoak nahiz sektorialak izan.

Horrenbestez, udal kontratazioan klausula sozialak garatzeko zehazten diren ekintzak gizarteratzearen eta enpleguaren alorreko udal programa sektorialeiei lotuko zaizkie modu operatiboan, eta genero-berdintasunean aurrera egiteko baliatuko dira.

Era berean, Udalak bere erosteko ahalmena baliatu behar du ingurumenerako onuragarriak izango diren produktuak eta zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko, produktuen merka-

tuak ingurumen-abantailekin suspertzeko, gizakien osasunaren kontrako eraginak murrizteko eta energiaren erabilera, emisio toxikoak eta baliabide naturalen agortzea murrizteko. Horrenbestez, udal kontratazioan ingurumen-klausulak edo ingurumen-irizpideak txertatzek kontratazio publiko berde edo ekologikoa sustatzea du xede, baliabide eraginkorra baita hori ingurumena gehien errespetatzen duten teknologiak, produktuak eta zerbitzuak sustatzeko eta, era horretan, udal kontsumoak ingurumenean duen inpaktua murrizteko. Gainera, berrikuntza ekologikoa bultzatzen du, eta, beraz, garapen iraunkorra lortzen laguntzen.

Bidezko Merkataritzari dagokionez, Europako erakundeek nahiz eskualde eta tokiko gobernu ugariarik elikagaien, ehunen eta beste ondasun batzuen hornikuntzaren baitan Bidezko Merkataritzako produktu jakin batzuk zuzeneko erosketa bidez edota lizitazio publikoen bitartez erosteko eskakizunak txertatu dituzte.

Nolanahi ere, zuzendaritza-ardura eta ardura teknikoa duten eta jarraibidearen xedean zein betetzean inplikaziorik zuzenena duten pertsonak jarraibideari ematen dioten bultzadaren arabera izango da jarraibidearen beraren garapena eta eraginkortasuna.

Kontratazio iraunkorra gauzatzeko babes politikoa izatea funtsezkoa da arrakasta lortzeko. Esperientziak argi eta garbi erakusten du kontratazio iraunkorra ezartzeko konpromisoa hartu dutenek babes politikorik ez badute oso zaila dela erakunde osoaren lankidetzak lortzea. Erosketa iraunkorraren alorreko politika idatziz jasota edukitzea oinarri egokia da ikuspegi koherente eta koordinatua eraikitzeko.

Jarraibideak hiru mekanismo ditu helburuak bete daitezen eta, azken batean, benetan aplikatu dadin bermatzeko.

Lehena Ezarpen Plana da, non helburuak eta horiek lortzeko behar diren bitartekoak aipatzen baitira. Bigarrena Erosketa eta Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra egiteko Plana da, zeina Gobernu Batzarrak onetsi beharko baitu urtero. Horrek malgutasuna emango dio jarraibideari une oro erosketa eta kontratazioari lotutako premia espezifikoa eta praktikoetara egokitzeko, gizarte eta ingurumen lehentasunak ezartzeko, eta antolakundeari, inplikaturako gizarte- eta produkzio-eragileei eta gizarteari oro har komunikatzeko estrategia zehazteko. Hirugarrena ebaluazio eta jarraipen sistema da, alor hauetan eskumena duten sail eta zerbitzuetako teknikariek osatutako batzorde tekniko baten ardurapean: kontratazioa, enplegua eta garapen ekonomiko iraunkorra, gizarte politikak, ingurumena, garapenerako lankidetzak, berdintasuna eta gazteria.

Bestalde, zerbitzuko jarraibide eta aginduak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21. artikuluan eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1.eko 40/2015 Legearen 6. artikuluan araututakoak– administrazio-organismoek hierarkikoki beren mendeko diren organoen jarduerak zuzentzeko baliatu ditzaketek tresnak dira. Aplikatzekoa den jurisprudentziadoktrinaren arabera, ez dakarte berekin ordenamendu juridikoaren berrikuntzarik, ezta hirugarrenen egoera juridikoak arautzea ere. Jarraibidean jasotako zehaztapenek oro es-

katzen dute, aplikatuko badira, udal kontratuak arautzen dituzten administrazio-klausulen agirietan sartzea, eta kontratazio-organo eskudunek onartu beharko dituzte horiek aldian-aldiko.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 127.1.f artikulua ikusi da.

Alkateak eskumenak besteren gain uzteko 2015eko ekainaren 19an emandako dekretua ikusirik, Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkariak ERABAKI-PROPOSAMEN hau aurkezten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

- 1.- GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEA onestea, zeina dosierrean jaso baita.
- 2.- Udaleko sailei agintzea behar diren neurriak har ditzaten, jarraibidearen helburuak bete daitezen eta, azken batean, benetan aplikatu dadin bermatzeko.
- 3.- Udalbatzari eranskinean dagoen agiria helaraztea, GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEAri buruzko erakunde-adierazpena onetsi dezan.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko urriaren 14an.

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko
Iraunkorraren Saileko zinegotzi ordezkaria.

GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEA onestea

Erakunde Adierazpena

Ogasun Batzordearen mendeko lantalde bat sortzea erabaki zuen udalbatzak 2013ko urriaren 18an, udal teknikariek klausula sozialen eta ingurumen-klausulen arloan egindako lanak azter zitzan, eta klausula horiek Gasteizko Udalaren taldearen kontratazio-prozesuetan aplikatzeko proposamenak egin.

Indarrean dagoen klausula sozialen jarraibidearen jarraipena egiteaz arduratzen den batzorde teknikoak lantalde horren enkargua jaso zuen, Udalaren kontratazioan klausula sozialak, ingurumenaren alorrekoak, genero-berdintasunaren alorrekoak eta bidezko merkataritzaren alorrekoak gehitzeko, eta Gasteizko Udalak kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko jarraibidearen lehen zirriborroa landu zuen, zein 2014ko abenduan aurkeztu baitzitzaien talde politikoei, gizarte-eragileei eta udal zerbitzuei, eta orobat zabaldu zen ekarpenak egiteko epea. Ekarpak horiek aztertu eta txostena egin zelarik, bigarren zirriborrora ekarri ziren gehienak, eta joan den uztailaren 30ean aurkeztu zitzaizen hori egungo udalbatzako talde politikoei.

Aholkularitza Juridikoak, kontu-hartzaileak eta Udalbatzaren Idazkaritza Nagusiak egindako txosten juridikoak aintzat harturik, egokitu egin zen dokumentu hori joan den uztailaren 30ean, eta burututzat jo zen proposamen teknikoak, zeinen oinarriak ondoren laburki azaltzen baitira.

Kontratazio eta erosketa publiko iraunkorraren barruan, sektore publikoak, bere kontratazio- eta erosketa-jardueren bitartez, zeregin eredugarria bete behar du iraunkortasunari dagokionez.

Administrazio-kontratazioaren helburu eta printzipioak beste arlo batzuetako politikekin modu egoki eta eraginkorrean uztartuko dituen sistema bat egituratzeko aukera ematea du helburu jarraibideak, hala nola iraunkortasunaren alorrekoekin, enpleguaren eta gizarteratzearen alorrekoekin, ingurumenaren alorrekoekin, genero-berdintasunaren alorrekoekin edo garapenerako lankidetzaren alorrekoekin.

Kontratazio publikoa modu aktiboan erabiliko da Udalaren estrategia, plan eta proiektu sozialetan nahiz ingurumenaren eta hizkuntzaren alorrekoetan finkatutako helburuak lortzeko, estrategikoak nahiz sektorialak izan.

Horrenbestez, udal kontratazioan klausula sozialak garatzeko zehazten diren ekintzak gizarteratzearen eta enpleguaren alorreko udal programa sektorialeiei lotuko zaizkie modu operatiboan, eta genero-berdintasunean aurrera egiteko baliatuko dira.

Era berean, Udalak bere erosteko ahalmena baliatu behar du ingurumenerako onuragarriak izango diren produktuak eta zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko, produktuen merkatuak ingurumen-abantailekin suspertzeko, gizakien osasunaren kontrako eraginak murrizteko eta energiaren erabilera, emisio toxikoak eta baliabide naturalen agortzea murrizteko. Udal kontratazioan ingurumen-klausulak edo ingurumen-irizpideak txertatzeak kontratazio publiko berde edo ekologikoa sustatzea du xede, baliabide eraginkorra baita hori ingurumena gehien errespetatzen duten teknologiak, produktuak eta zerbitzuak sustatzeko eta, era horretan, udal kontsumoak ingurumenean duen inpaktua murrizteko. Gainera, berrikuntza ekologikoa bultzatzen du, eta, beraz, garapen iraunkorra lortzen laguntzen.

Bidezko Merkataritzari dagokionez, Europako erakundeek nahiz eskualde eta tokiko gobernu ugariarik elikagaien, ehunen eta beste ondasun batzuen hornikuntzaren baitan Bidezko Merkataritzako produktu jakin batzuk zuzeneko erosketara bidez edota lizitazio publikoen bitartez erosteko eskakizunak txertatu dituzte.

Bestalde, zerbitzuko jarraibide eta aginduak –Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21. artikuluan eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1.eko 40/2015 Legearen 6. artikuluan araututakoak– administrazio-organoek hierarkikoki beren mendeko diren organoen jarduerak zuzentzeko baliatu ditzaketen tresnak dira. Aplikatzekoa den jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ez dakarte berekin ordenamendu juridikoaren berrikuntzarik, ezta hirugarrenen egoera juridikoak arautzea ere. Jarraibidean jasotako zehaztapenek oro eskatzen dute, aplikatuko badira, udal kontratuak arautzen dituzten administrazio-klausulen agirietan sartzea, eta kontratazio-organo eskudunek onartu beharko dituzte horiek aldi-aldiko.

7/85 Legearen 127.1.f artikulua ikusirik, ERABAKI-PROPOSAMEN hau egiten dugu:

1.- Gobernu Batzarrari eskatzea GASTEIZKO UDALAK KONTRATAZIO GIZARTEAREKIKO ARDURATSUA ETA IRAUNKORRA EGITEKO JARRAIBIDEA onets dezan, zeina erakunde-adierazpen honen eranskinean jaso baita.

2.- Udal sozietateei erakunde-adierazpen honetan eta eranskinean jasotako printzipioen berri ematea, haiek parte diren kontratazio-prozesuetan txerta ditzaten.

Erakunde adierazpena bozkatu delarik, **BERTAN ZEUDEN ZINEGOTZIEKAHO BATEZ BERRRETSI DUTE.**

2015eko azaroaren 6ko
Osoko Bilkura

1. ZIOEN ADIERAZPENA

1.1. Aurrekariak

Kontratazio publikoan kontsiderazio sozialak eta ingurumen-arlokoak kontuan hartzeko eta kontsiderazio horiek kontratua betetzeko baldintza berezi gisa edo eskaintzak balioes- teko irizpide gisa konfiguratzeko aukera ematen duten mekanismoen aurreikuspena sek- tore publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeak txertatu zuen orde- namendu juridikoan. Izan ere, lege horrek 2004/18/EE Zuzentarauaren norabideak lekuz aldatu zituen, eta berrikuntza esanguratsuak ekarri zituen zuzentarauari lotutako nego- zioen prestaketari eta esleipenari dagokionez. Ildo horretan, kontratuak eskakizun etiko eta sozial berrietara egokitzeke jarraibideak biltzea ahalbidetuko zuen egitura bat aurreiku- si zuen. Besteak beste, prestazioak garapen-bidean dauden herrialdeekiko bidezko merka- taritzaren eskakizunetara egokitzea aipatzen zen, Europako Parlamentuak uztailearen 6an emandako Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruzko Ebazpenean (2005/2245 (INI)) aurreikusi bezala. Ebazpen horrek beren ohiko erosketetan bidezko merkataritza txertatze- ko eskatzen die esanbidez agintari publikoei, produktu horiek sustatzeko eta, era horretan, ondasun eta zerbitzuen eskari publikoa baliabide naturalen benetako erabilgarritasunera egokitzeke.

Erregulazio hori bera ezartzen da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan.

2008ko ekainaren 23an, Bidezko Merkataritza babesteko erakunde-adierazpena onartu zuen Gasteizko udalbatzak, "Udalaren erosketa-politiketan Bidezko Merkataritzako pro- duktuak txertatzeko", eta, zehazki, konpromisoa hartu zuen:

- a) Erosketa Publiko Etikoari lotutako irizpideak txertatzera bideratutako jardunak hasi edo indartzeko.
- b) Erosketa-politiketan Bidezko Merkataritzako produktuen txertatzea bultzatzeko.
- c) Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntzaren arloko ildo estrategikoen barruan Bidezko Merkataritzari lotutako jarduerak bultzatzeko.
- d) Herritarrei Erosketa Publiko Etikoaren eta Bidezko Merkataritzaren eragin positiboan berri emateko, eta horren inguruan kontzientziatzeko.

Halaber, 2008ko azaroaren 21ean, honako mozio hau onartu zuen udalbatzak:

“Gasteizko udalbatzak Administrazio honek sustatzen dituen kontratuak aztertzea onartu du, baldintzen agirietan klausula sozialak txerta daitezen, betiere betetzeko modukoak badira”.

“Gasteizko udalbatzak azterketa hori Ogasun Sailak udal-zerbitzu juridikoekin lankidetzan egin dezan eskatzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari”.

Tokiko Gobernu Batzarraren 2010eko ekainaren 18ko erabakiz, gure Udalaren kontratazioan klausula sozialak txertatzeko aukera arautzen duen Jarraibidea onartu zen.

Udal-jarraibide horrek bere egin zituen —eta zehaztu egin zituen— legean aurreikusitako mekanismoak, eta, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginak bezala, kontratazio administratiboa gizarte-bazterkeriari aurre egiten dioten politika publikoen eta, bereziki, merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak lan-merkatuan txertatzeko aukera erraztea bilatzen duten politika publikoen zerbitzura jardungo duen tresna izan daitekeen ideian oinarritzen zuen esparru horretan lan egiteko edo esku hartzeko proposamena.

Jarraibidearen 3. eta 4. xedapen orokorretan aurreikusitakoari jarraiki, enplegu, gizarteratze eta kontratazioko udal-zerbitzuetako ordezkariak osatutako Batzorde Tekniko batek babesa eta aholkularitza eskaini zien kontratazio-organoei arlo horretan, eta Jarraibidearen betetzea ebaluatuko du aldizka.

2013ko urriaren 18an, udalbatzak Ogasun Batzordearen mendeko lan-talde bat sortzea erabaki zuen, bertan udal-technikariek klausula sozialen eta ingurumen-klausulen arloan egindako lanak aurkeztu eta aztertzeko, Gasteizko Udalaren kontratazio-prozesuetan aplikatu ahal izan zitezen (horren ondorioa da, hain zuzen ere, jarraibide hau).

1.2. Kontratazio publiko estrategikoa: efizientzia, iraunkortasuna eta gardentasuna¹

2014ko martxoaren 28an, Europako Parlamentuak 2014ko urtarrilaren 15ean kontratazioari buruz onartutako hiru Zuzentarau berriak² argitaratu ziren Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean (EBAO). Zuzentarau horiek 2004/2017 eta 2004/2018 Zuzentarauak ordeztu zituzten, eta zerbitzuen emakidak arautu (ordura arte, kontratazio publikoaren printzipio orokorrek baino ez zituzten eraginpean hartzen emakida horiek).

1. Kontratazioari buruzko Zuzentaraan erabilitako esamoldea (123. kontuan hartuzkoa).

2. 2014/23/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, emakida-kontratuen esleipenari buruzkoa; 2014/24/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena; 2014/25/EB Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2014ko otsailaren 26koa, uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan diharduten erakundeen kontratazioari buruzkoa eta 2004/17/EE Zuzentaraua indargabetzen duena.

Kontuan izan behar da kontratazio gizartearekiko arduratsuz dihardugularik ez garela ari bakarrik etikaz, gizarte kohesioaz edo ingurumen-iraunkortasunaz, baizik eta, zeharka, aurrekontu-eraginkortasunaren eta aurrekontu publikoen erabilera zuzenaren nozioa ere hartzen duela bere baitan horrek³.

Erregulazio berria prestatzeko dokumentu eta lanen artean, helburuak zehazten dituzten bi azpimarra daitezke: «EBko kontratazio publikoari buruzko politika modernizatzeko Liburu Berdea. Kontratazio publikoaren Europako merkatu efizienteago baterantz» dokumentua, eta Batzordearen 2010eko martxoaren 3ko Komunikazio bidez onartutako «Europa 2020 Estrategia, hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaile baterako estrategia» dokumentua.

Liburu horretan, efizientziaren helburuari begira, kontratazio publikoa modernizatu eta sinplifikatzea eta kontratazio publikoaren eta «Europa 2020 Estrategiaren» barruko politiken arteko elkarreragin handiagoa ahalbidetzea aldarrikatzen da, era horretan enplegua gehitu eta sortzeko funts publikoen erabilera eraginkorragoa ziurta dadin. Horretarako, Europako agintari publikoentzat eta erakunde hornitzaileentzat kontratuen esleipenak gardenagoak eta lehiakorragoak izateko tresna malguagoak eta erabilerrazagoak erabiliko dira.

«Europa 2020 Estrategiak» Erkidegoko hamarkada honetarako garapen-plangintza ezartzen du, eta elkarri lotutako honako hiru helburu hauetan oinarrituta dago:

- a) Jakintzan eta enpresa-berrikuntzan (eta, bereziki, ETEen berrikuntzan) oinarritutako ekonomia bat garatzea.
- b) Karbono-emisio gutxiago eragingo dituen eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliko dituen ekonomia ekologikoago bat sustatzea.
- c) Enplegu-maila handiagoa eta gizarte- eta lurralde-kohesio handiagoa eskainiko duen ekonomia lehiakorrago bat sustatzea.

Zuzentarau berrietan eskatzen den «kontratazio estrategikoak» kontratu publikoen erabilera aktiboa dakar, sektore publikoa eta pribatua hornitzeko uraren, energiaren, garraioen eta posta-zerbitzuen sektoreetan inbertitutako baliabideek era aktiboagoan lagun dezaten honako helburu hauek lortzen:

- a) ETEek kontratu publikoak lortzeko aukera erraztea, eta, horretarako, prozeduretan malgutasuna sartzeari, negozioetan administrazio-karga murriztea eta hautagaien finantza-egoerari lotutako neurri kanpoko betekizunak saihestea.

3. Zentzu horretan, Europar Batasunak, ikus bedi Enpleguaren, Gizarte Gaietan eta Aukera Berdintasunaren Zuzendaritzak SEC(2010) 1258 final agiria abiapuntutzat harturik landutako "Buying Social. A Guide to Taking Account of Social Considerations in Public Procurement" argitalpena. Bertan kapitulu bat eskaintzen zaie kontratazio publiko gizartearekiko arduratsua izan ditzakeen abantailari, eta, 2.5. puntuan, honela dio: Gastu publiko eraginkorragoak ziurtatu. Kontratazio publikoaren bolumenak eta zuzeneko esku-hartze sozialari aurrekontu-zorrotasunak ezartzen dizkion mugak gizarte inklusioa sustatzeko eremu erakargarria bihurtu dezakete kontratazioa.

b) Kontratazio publikoan kontsiderazio sozialak eta ingurumen-arlokoak (hala nola enpresen erantzukizun korporatiboa) txertatzeko aukera sustatzea, eta, ildo horretan, karbono-emisio gutxiago eragingo dituen eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiliko dituen ekonomia baterako aldaketa bultzatzea (kontratazio publiko ekologiko baten orokortzea sustatzea, adibidez).

c) Kontratazio publikoaren bidez berrikuntza babestea, eta, horretarako, enpresen – eta, bereziki ETE berritzaileen– berrikuntza erraztuko duten baldintza orokorrak hobetzea eta ildo horretako eskari-politikak erabat baliatzea.

d) Kontratazio elektronikoa bultzatzea.

1.3. Klausula sozialen eta ingurumen arlokoen definizioa

Honela definitzen dira kontratazio publiko gizartearekiko arduratsuek *“Buying Social. A Guide to Taking Account of Social Considerations in Public Procurement”* gidan:

“1.1 Kontratazio publiko gizartearekiko arduratsuez dihardugarik, alderdi sozial haue-takoren bat edo batzuk aintzat hartzen dituzten eragiketez ari gara: enplegu-aukerak, lan duina, eskubide sozial eta laborekiko begirunea, gizarte inklusioa (ezintasunen bat duten pertsonak barne), aukera-berdintasuna, irisgarritasuna eta guztiontzako diseinua, iraunkor-tasun-irizpideak aintzat hartzea —merkataritza etikoa barne—, eta enpresen erantzukizun sozialaren borondatezko errespetu handiagoa, Europar Batasunaren Tratatuak printzipioak eta kontratazio-zuzentarauak errespetatzeaz gain”.

Definizioa gure zuzenbide positiboan (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Tes-tu Bategina) oinarrituta, kontratazio publikoari buruzko arauetan ezarrita dauden, politika sozial, politika etiko edo ingurumen-politikako helburuak (zentzurik zabalenean) lortzera bideratuta dauden eta —eta kontratuaren xedean sartu diren— estipulazio edo xedapen gisa defini daitezke klausula sozialak eta ingurumen-arlokoak. Horren arabera, kontratazio-organoek kontsiderazio sozialak edo ingurumen-kontsiderazioak txerta ditzakete kontra-tazio-organoek, aldez aurreko betekizun gisa (onarpen-irizpidea edo merkatu-erreserba), balioespen-elementu gisa (esleipen-irizpidea) edota kontratuari datxekion betebeharrak gisa (betearazpen-baldintza), betiere Europako Erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badi-ra eta kontratuaren lizitazio-iragarkian eta baldintzen agirian adierazita badaude.

Ingurumen-arloko klausulak, bereziki, ingurumen-izaerako irizpideei lotuta dauden eta ad-ministratio publikoek erosi eta kontratatutako eta, beraz, kontratazio-prozesu eta kontra-tazio-dokumentuetan sartutako produktu, zerbitzu eta obrek ingurumenean, osasunean eta bizi-kalitatean duten eragina —bizitza-zikloaren ikuspegitik— murrizteko helburua du-ten xedapen gisa definitzen dira.

1.4. Iraunkortasuna Gasteizko Udalaren kontratazioaren testuinguruan kokatzea.

Kontratazio eta erosketa publiko iraunkorraren barruan, sektore publikoak, bere kontratazio- eta erosketa-jardueren bitartez, zeregin eredugarria bete behar du iraunkortasunari dagokionez. Indarrean dagoen legeria ez ezik, kontratazio publikoaren, ingurumenaren babesaren, gizarte-politiken eta berrikuntzaren sustapenaren eremuetako politika publikoen helburuak ere osatu eta hobetu egingo dira, eta orobat txertatuko euskararen sustapena, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Planaren (2013-2017) haritik.

Jarraibidearen helburua kontratazio-sistema bat egituratzeko aukera ahalbidetzea da. Sistema horretan, eremu horretatik guztiz kanpo ez badaude ere iraunkortasunaren, enplegu eta gizarteratzearen, ingurumenaren, genero-berdintasunaren eta garapenerako lankidetzaren inguruko politiken garapenari lotuta dauden beste helburu eta printzipio batzuekin behar bezala eta eraginkortasunez uztartuta geratuko dira kontratazio administratiboari datzekion helburu eta printzipioak.

Zuzendaritza-ardura eta ardura teknikoa duten eta jarraibidearen xedean zein betetzean inplikaziorik zuzenena duten pertsonak jarraibideari ematen dioten bultzadaren araberakoa izango da jarraibidearen beraren garapena eta eraginkortasuna.

Kontratazio iraunkorra gauzatzeko babes politikoa izatea funtsezkoa da arrakasta lortzeko. Esperientziak argi eta garbi erakusten du kontratazio iraunkorra ezartzeko konpromisoa hartu dutenek babes politikorik ez badute oso zaila dela erakunde osoaren lankidetzaren lortzea. Idatzizko erosketa-politika iraunkor bat edukitzea oinarri egokia da ikuspegi koherente eta koordinatu bat eraikitzeko.

Administrazio-kontratazioaren bitartez, euskararen erabilerearen normalizazioa sustatuko du Udalak.

Udalaren kontratazioan klausula sozialak garatzeko zehazten diren ekintzak gizarteratzearen eta enpleguaren arloko udal-programa sektorialeki lotuta egongo dira operatiboki, eta lagungarriak izango dira genero-berdintasunean aurrera egiteko.

Udalak bere erosteko ahalmena baliatu behar du ingurumenerako onuragarriak izango diren produktuak eta zerbitzuak eskuratu eta erabiltzeko, produktuak merkatuak ingurumen-abantailekin suspertzeko, gizakien osasunaren aurkako eraginak murrizteko, eta energiaren erabilera, emisio toxikoak eta baliabide naturalen agortzea murrizteko.

Udal-kontratazioan ingurumen-klausulak edo ingurumen-irizpideak txertatzeak kontratazio publiko berde edo ekologikoa sustatzea du xede, baliabide eraginkorra baita ingurumena neurririk handienez errespetatzen duten teknologiak, produktuak eta zerbitzuak sustatzeko eta, era horretan, udal-konsumoak ingurumenean duen inpaktua murrizteko. Horrek, gainera, berrikuntza ekologikoa bultzatzen du, eta, beraz, garapen iraunkorra lortzen laguntzen du.

Era berean, kontratazio publikoa modu aktiboan erabiliko da Udalaren estrategia, plan eta proiektu sozialetan nahiz ingurumenaren eta hizkuntzaren alorrekoetan finkatutako helburuak lortzeko, estrategikoak nahiz sektorialak izan.

Bidezko Merkataritzari dagokionez, Europako erakundeek nahiz eskualde eta tokiko gobernu ugariarik elikagaien, ehunen eta beste ondasun batzuen hornikuntzaren baitan Bidezko Merkataritzako produktu jakin batzuk zuzeneko erosketa bidez edota lizitazio publikoen bitartez erosteko eskakizunak txertatu dituzte.

1.5. Justifikazio juridikoa

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 21. artikuluan araututako zerbitzuko jarraibide eta aginduak administrazio-organismoek hierarkikoki beren mendeko diren organoen jarduerak zuzentzeko baliatu ditzaketen tresnak dira. Aplikatzekoa den jurisprudentzia-doktrinaren arabera, ez dakarte berekin ordenamendu juridikoaren berrikuntzarik, ezta hirugarrenen egoera juridikoak arautzea ere.

Jarraibidean jasotako zehaztapenek oro eskatzen dute, aplikatuko badira, udal kontratuak arautzen dituzten administrazio-klausulen agirietan sartzea, eta kontratazio-organo eskudunek onartu beharko dituzte horiek aldian-aldiko.

Kontratazio estrategiko berriaren informazio-printzipioak (efizientzia, iraunkortasuna eta gizarte-errentagarritasuna) kontratazio publikoan zuzenean aplikatzeko aukerari dagokionez, aipatu da⁴ Zuzentarauak eraginkorrak izateko zuzenbide nazionaletara eraman behar badira ere, Zuzentarau horien filosofia dagoeneko zuzenean txerta daitekeela gure kontratuetan. Izan ere, gure zuzenbide positiboan egon badaude horretarako tresnak, eta, nolahi ere, kontratazioa, estrategikoki eta zeharka, «Europa 2020 Estrategiaren» ardatz diren politikak ezartzeko erabili behar dela kontuan hartuta aplikatu behar dira tresna horiek.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, kontratatzekeo debekuak (60.1-c) artikulua) eta kaudimenaren egiaztapena (62. artikulua eta hurrengoak) adierazteaz gain, bereziki aipatzen ditu irizpide horiek lau xedapenetan:

4 Las nuevas Directivas sobre contratación pública. Apuntes sobre su aplicación directa y para su transposición. JOSÉ MANUEL MARTÍNEZ FERNÁNDEZ. Valladolideko Udaleko idazkariorde nagusia. "El Consultor de los Ayuntamientos y de los Juzgados" aldizkaria, 8. zk., "Sección Actualidad", 2014ko apirilaren 30etik maiatzaren 14ra arteko hamabostaldia; erref.:

a) 118. artikuluan adierazten denez, kontratazio-organoek baldintza bereziak ezar ditzakete kontratuaren betearazpenari dagokionez. Baldintza horiek ingurumen-konksiderazioak eta konksiderazio sozialak hartuko dituzte kontuan, edota lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, merkatu horretan genero-desberdintasunak desagerraraztea, langabeziari aurre egitea eta lantokiko prestakuntza bultzatzea izango dute helburu.

b) 150. artikuluan, eskaintzak balioesteko irizpideak daude ezarrita, eta, lehen tartekian, ingurumen-ezaugarriak edo kontratatu beharreko prestazioen erabilzaile edo onuradunek osatzen dituzten biztanleria-kategoria bereziki behartsuei dagozkien eta kontratuaren zehaztapenetan definituta dauden premiei erantzuten dieten eskakizun sozialen gogobetetzeari lotutako ezaugarriak haztatzen dituen hartzen da baliozko irizpidetzat. Irizpide horiek zuzenean kontratuaren xedeari lotuta egon beharko dute.

c) Laugarren xedapen gehigarrian adierazten denez, organo horiek, berdinketarik izanez gero, plantillan 100eko 2tik gorako proportzioan desgaituak dituzten enpresek, laneratze-enpresek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek (prestazio sozial edo asistentzialeari lotutako kontratuen kasuan) edo Bidezko Merkataritzako erakunde gisa aintzatesitako erakundeek (horrelako alternatiba baterako aukera eskaintzen duten produktuei lotutako kontratuen kasuan) esleitzeko lehentasuna dutela adierazi ahal izango dute kontratazio-agirietan.

d) Bosgarren xedapen gehigarri aldatuan, adierazten delarik ezen, toki-erakundeko organo eskudunak kontratu jakin batzuk edo horietako sorta jakin batzuk esleitzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidearen gutxieneko erreserba-portzentajeak finkatuko dituela Laneratze-enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten enplegu-zentro berezi edo laneratze-enpresentzat, edo kontratu horiek enplegu babestuaren arloko programen baitan gauzatzeko gutxieneko erreserba-portzentajea, baldintzat jarri enplegu-zentro berezietan, laneratze-enpresetan edo programetan enplegatutako pertsonen gutxienez ehuneko 30ek ezintasunen bat edukitzea edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran egotea, eta akordioan bertan finkatu beharko direla aurreko paragrafoan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko gutxieneko baldintzak.

Euskararen normalizazio eta sustapenari dagokionez, honakoak dira bete beharreko arauak: hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, hala nola 1997ko urtarrilaren 20an onartutako Vitoria-Gasteizko Udalean eta Udalerrian Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeari Buruzko Udal Ordenantza eta 2013ko abenduaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako Vitoria-Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren (2013-2017) atal den Hizkuntza Ofizialak Vitoria-Gasteizko Udalean erabiltzeko irizpideak.

Horrez gain, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak xedatutakoa ere kontuan hartu beharko da. 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: “Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezen.” —18 d) atala—. Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18 d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.

2. XEDAPEN OROKORRAK

Administrazio publikoek eta, zehazki, Gasteizko Udalak, ingurumenarekiko begirunea, hizkuntzaren normalizazioa, genero-berdintasuna, tokiko garapen ekonomikoa eta herritarren ongizatea bilatzen dutelarik, beren ekintzak oro estrategia hauekin lerrotatu beharra daukate, eta jakina da kontratazio publikoa dela interes orokorra babesten lagundu lezakeen tresnetako bat. Ez dago kontratazioa administrazioen estrategietatik bazter uzterik.

Eta, horrenbestez, udal kontratazioak bat etorri beharko du unean-unean indarrean dauden plan estrategiko eta sektore-planekin.

2.1. Xedea eta aplikazio eremua

Jarraibide honen xedea udal-kontratueta kontsiderazio sozialak eta ingurumen-arlokoak txertatzeko aukera bultzatzea da, era horretan garapen iraunkorrean laguntzeko.

Gobernu-ardurak, zuzendaritza-ardurak edo ardura teknikoak dituzten eta Gasteizko Udalaren kontratazio- eta erosketa-prozedurak sustatzen edo izapidetzen dituzten edo prozedura horietan esku hartzen duten pertsoneri zuzenduta dago, eta udal-sozietateen kontratazioan klausula sozialen eta ingurumen-arlokoen jarraibideak lantzeko eredu izateko sortu da.

Gasteizko Udalaren kontratuei aplikatuko zaie jarraibide hau, eta arauz bete beharrekoa izango da kontratazio-organo guztientzat.

Nahitaezkoa izango da klausulak txertatzea, hurrengo paragrafoan adierazten denaren ildotik, 100.000,00 euroko edo hortik gorako (BEZ gabe) lizitazio-aurrekontua edo 4 hilabetetik gorako gauzatze-epea duten kontratu guztietan.

Esleipen-prozedura edozein delarik ere aplikatuko da, eta esparru-akordioetan, salbu eta kontratu txikietan eta publizitaterik gabeko prozedura negoziatuetan, non kontratazio-organoaren ustez kontratuaren ezaugarriek eta edukiak aukera ematen badute aplikatuko baita.

Kontratazio-organoek egokitu edo modulatu egin ahal izango dute klausulen idazkuntza, kontratu bakoitzaren ezaugarrien eta egokitasunaren arabera.

Nolanahi ere, ezarritako ehunekoak edo baremoak murrizten badira, baita klausulak jartzen ez badira ere, kontratazio-organoak (sailek edo zerbitzuek) salbuespenari buruzko txosten bat egin beharko du, zein dossierrean jasoko baita eta Kontratazio Zerbitzuak ontzat eman beharko baitu. Bertan, justifikatu egin beharko dira klausulak ez sartzeko arrazoiak, hots, kontratuaren ezaugarriak jarraibide hau aplikatzeko egoki ez direla erakutsi.

2.2. Aplikazio irizpideak

Iraunkortasun-printzipioa izango da prozesuaren eta kontratazio-prozeduren ardatza Gasteizko Udalean eta haren mendeko erakunde eta sozietateetan.

Jarraibidea, nolana ere, gastu publikoaren egikaritzearen oinarri diren eraginkortasun-eta efizientzia-printzipioak kaltetu gabe eta administrazioaren kontratu-jardueraren oinarri diren printzipio orokorrak eta, bereziki, salgaien zirkulazio librearen eta zerbitzuen prestazio librearen, publikotasunaren, lehiaren, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren, garden-tasunaren eta proportzionaltasunaren printzipioak betez aplikatuko da.

Konsiderazio edo irizpide sozialak eta ingurumen-arlokoak kontratazio-agirietan non eta nola txerta daitezkeen zehazten du Jarraibideak kontratazioaren fase guztietan (prestaketa-fasean, esleipen-fasean eta betearazpen-fasean). Gainera, hainbat eranskin ditu; horietako hiru kontratazioaren alderdi sozialei lotuta daude, eta bat ingurumen-alderdiei.

Alderdi sozialei lotutako eranskinek lehentasunezko gizarte-kolektiboak (I. Eranskina), irizpide eta betebeharrak sozialekiko konpromiso-adierazpen bat (II. Eranskina) eta lan-merkatuan egoerarik txarrean dauden pertsonen kontratazioari eta gizarteratze eta laneratze-ari dagokienez hartutako betebeharrak eta konpromisoen protokolo bat (III. Eranskina) hartzen ditu kontuan.

Jarraibidearen IV. Eranskinean, gaur egun erosketa eta kontratazio berde edo ekologikoari buruz dagoen informazioa dago jasota, Europakoa (Europako Batzordea) eta Autonomia Erkidegokoa (Ihobe – Eusko Jaurlaritza). Kasu bakoitzean, baldintzen agirietan produktu, zerbitzu eta obra askotarako ingurumen-klausulak edo erosketa berdeko irizpideak txertatzeko eskuragarri dauden materialen kontsultarako webgunea agertzen da. Gainera, gaiari buruzko erreferentziarako argitalpenen zerrenda bat bildu da.

2.3. Erosketa eta kontratazio gizartearekiko arduratsua eta iraunkorra egiteko plana: EKIP

Tokiko Gobernu Batzarrak Erosketa eta Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra Egiteko Plan bat (EKIP) onartuko du urtero sail guztientzat. Plan hori, halaber, erreferentzia gisa baliatu ahal izango dute erakunde autonomoek eta udal sozietateek. Plana dokumentu argia eta zehatza izango da, erosketa eta kontratazioari lotutako premia espezifikoa eta praktikoetara egokituta egongo da beti, eskuragarri egongo da prozesuan parte hartzen duten langile guztientzat, eta gizarteari jakinaraziko zaio.

EKIPak udal-kontratazioan gizarteratzea, genero-berdintasuna, Bidezko Merkataritza eta ingurumenarekiko errespetua bultzatuko duten jardunbideak ezartzeko eginkizuna izango du.

Kontsiderazio sozialei eta ingurumen-kontsiderazioei dagokienez, honako betebeharrak izango ditu EKIPak:

- a) Udal-administrazioak politika sozialen helburuekin hartu beharreko konpromiso politikoa ezartzea, erosketa eta kontrataziorako udal-politikaren adierazpen baten bidez. Funtsekin honako hauek izango dira: pobrezia eta gizarte-desberdintasunei buruzko 2012ko inkesta, 2012-2016 aldiko Gizarteratzeko III. Euskal Plana, EAEko memoria sozioekonomikoa, 2014ko lehen hiruhilekoko Biztanleria Aktiboaren Inkesta (BAI) eta horiek ordeztzen dituzten dokumentuak.
- b) Udal-administrazioak iraunkortasun-helburuekin hartu beharreko konpromiso politikoa ezartzea, adierazitako erosketa eta kontrataziorako udal-politikaren adierazpenaren bitartez baliabide naturalen zentzuzko kudeaketan eta aprobetxamenduan laguntzea, eta, ildo horretan, udal-kontratazio publikoa honako helburu hauekin aktiboki erabiltzea:
 - Ingurumena errespetatuko duten jardunbideak ezartzea.
 - Tokiko Agenda 21eko tokiko ekintza-planean eta beste plan sektorial batzuetan (ingurumen-arlokoetan eta sozioekonomikoetan) jasotako ekintzak egitea.
- c) Gaur egungo kontratazio-jardunbideak ezarri, diagnostikatu eta berrikustea, oinarriko ildoak izango den erreferentziako inbentario bat egitea, eta, hortik abiatuta, erosteko eta kontratatzeko norabideak ezartzea eta aurrerapena neurtu ahal izatea.
- d) Garapen iraunkorra eta ingurumen-iraunkortasuna, iraunkortasun ekonomikoa eta iraunkortasun soziala sustatzeko lehentasun sozialak, ingurumen-lehentasunak eta erosteko eta kontratatzeko irizpide orokorrak finkatzea.
- e) Erosketa eta kontratazio iraunkorra babesteko antolamendua finkatzea eta erantzukizunak eta epeak esleitzea.
- f) Eskuratu edo kontratatuko diren produktu, zerbitzu eta obra jakin batzuekin lortu beharreko helburu kualitatibo eta kuantitatiboak eta epe laburreko jomugak ezartzea. Bidezko adierazleak ezartzea.
- g) Jarraibide teknikoak betetz, udal-kontratazioaren faseetan ingurumen-klausulak, sozialak, genero-berdintasunaren arlokoak eta abar pixkanaka txertatzeko aukera bultzatuko duten norabideak eta prozedurak (errezko klausulak, neurriak eta abar) ezartzea.
- h) Planifikatutako denbora-esparruan helburuak eta jomugak lortzeko baliabide ekonomiko gehigarriak finkatzea.
- i) Gizartearekiko komunikazio- eta informazio-estrategia bat lantzea, erosketa eta kontratazio iraunkorrerako politika baten garrantzia eta arrazoiak helarazteko.

j) Hornigaien fabrikatzaile eta agenteak eskaintzen diren produktu, zerbitzu eta obren iraunkortasunean motibatzeako beharrezkoak diren seinaleak merkatura helaraztea. Merkatuarekiko elkarrizketa eta kontsulta irekia antolatzea. Hornitzaileen parte-hartzea sustatzea.

k) Prestakuntza eta sentsibilizazio barne-programa bat ezartzea: barne-komunikaziorako bitartekoak esleitzea —ikastaroak, mintegiak, intranet eta abar—, baita kontratatu eta erosteko erabakietan zeresanik duten zuzendaritza-langile eta teknikarien prestakuntza eta sentsibilizatorako bitartekoak ere.

l) Aurrerapen-adierazleen neurriaren eta helburu eta jomugen aldizkako eguneratzearen bidez emaitzen jarraipena egiteko kontrol-prozedura bat diseinatzea.

2.4. Enplegu babestuko nitxoak

Klausula sozialak (beste lan-helburu batzuen artean) lan-merkatu arruntean zailtasunak dituzten pertsonak txertatzeko mekanismoak izan daitezke, eta are neurri handiagoan izango dira neurri osagarriak biltzen badituzte, hala nola administrazio publikoan klausula sozialak aplikatzearen ondorioz kontratazioaren xede diren pertsonentzako merkatu babestuko lan-nitxoak ezartzeko neurria —jarraibide honen I. eranskinean adierazten direnak izango dira horien profilak—.

Edonola ere, laneratzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonen eta gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen gizarteratzea eta laneratzearazten duten jarduera-sektoreetarako administrazio publikoak sortzen dituen aukerak hartzen dira enplegu babestuko nitxotzat.

Gasteizko Udalak enplegu babestuko nitxoak eskainiko ditu bere kontratazio-agiritan klausula sozialak aplikatzeko, klausulak aplikatzen diren modalitateetako edozeinetan: gauzatzeko baldintza bereziak, kontratu erreserbatuak eta abar. Horretarako, udal-arlo egokienetan alderdi hori kontuan har dadin eskatzen da. Izan ere, arlo horien lan-xedea hertsiki lotuta dago ingurumen-alderdiekin, generoberdintasunarekin, gizarteratze eta laneratzearekin eta Bidezko Merkataritzarekin, eta haren kontratu-jarduerak aukera gehiago ematen ditu klausula sozialak txertatzeko. Honako hauek dira: arlo soziala, espazio publikoa, ingurumena eta ingurune naturala, garbitasun- eta mantentze-eremuak, paisaia-eremua, hezkuntza eta kultura eta abar.

2.5. Ezarpen Plana

2.5.1.- Helburuak

- a) Jarraibidea erakunde osoan zabaltzea.
- b) Udal-kontratazioari lotutako organo erabakitzailerei, zuzendariei eta operadoreei Jarraibidea hainbat mailatan aplikatzeko prestakuntza ematea.
- c) Jarraibidea enpresa kontratisten, enplegu-zentro berezien, laneratze-enpresen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen artean zabaltzea.
- d) Udal-kontratazioaren euskarri dokumentala egokitzea.
- e) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Planean (2013-2017) jasotako aurreikuspenak ahalik eta modu eraginkorrenean ezartzea udal kontratazioaren dokumentu-sisteman: euskarri informatikoa eta baldintza agiriak.

2.5.2.- Bitartekoak

- a) Erabilerrari eta informazio publikoari buruzko eskuliburu bat egitea.
- b) Aplikazio informatiko bat abian jartzea. Horretarako, kontsulta-buletin baten zerbitzua ahalbidetuko duen informatika-tresna prestatu beharko da —gaiaren inguruko kontsultak, txostenak, araudiak eta abar artxibatze—, baita baldintza-orriak erregistratzeko zerbitzu bat ere.
- c) Ezartzeko beharrezkoak diren baliabideen zuzkidura.

2.6. Ebaluazioa eta jarraipena

Kontratazio-organoen ahalmenak aparte utzi gabe, Batzorde Tekniko bat Jarraibidearen ezarpena bultzatzeaz arduratuko da, eta Jarraibidearen betetzea ebaluatuko du aldizka.

2.6.1.- Batzorde Teknikoaren helburuak, osaera eta funtzioak

Batzorde Teknikoaren helburuak, osaera eta funtzioak honako hauek dira:

a) Helburuak:

- Jarraibidea beteko dela bermatzea.
- Udaleko saileri eta teknikarierik klausula sozialen eta ingurumen-arlokoen definizio eta ezarpenaren inguruko aholkularitza eskaintzea.

- Udal-kontratazioan klausula sozialak eta ingurumen-arlokoak txertatzeko eta irau-narazteko aukera bultzatzea, era iraunkor eta eguneratuan.
- Aldizka Jarraibidearen aplikazioaren berri ematea.

b) Osaera:

Kontratazioaren, enpleguaren eta garapen ekonomiko iraunkorraren, gizarte politiken, ingurumenaren, garapenerako lankidetzaren, berdintasunaren eta gazteriaren arloan es-kumenak dituzten sail eta zerbitzuetako teknikariak izango dira batzorde teknikoko kide, baita beste edozein arlotakoak ere, interesgarritzat jotzen bada. Kontratazio Zerbitzu Na-susia izango du batzorde horretako lider.

c) Funtzioak eta zereginak:

Proposatzeakoak:

- Kontratuen xede den arlo bakoitzeko tratamenduak behar dituen barneko eta/edo kanpoko adituen parte-hartzearekin, kontratazio-organoei eta horien mendeko uni-tate tekniko eta administratiboari klausula sozialen eta ingurumen-arlokoen aplika-zioaren arloan babesa ematea.
- Baldintza-agirien esleipen-irizpideetan eta betearazpen-baldintza berezietan klausu-la sozialak aplikatzeko lehenetsi beharreko kolektiboak zehaztea, eta, horretarako, bi urtean behin "lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak" dituen kolektiboaren ezaugarriak zehaztuko dituen txosten eguneratu bat lantzea eta txosten hori Ja-rraibideari Eranskin gisa gaineratzea. Txosten horretan, eta adierazitako kolektiboari dagokionez, nahitaez bete beharreko irizpideak, betearazpen-baldintza bereziak eta, hala badagokio, hobetzeko, esleitzeko edo balioesteko irizpideak zehaztuko dira.
- Udal-kontratazioaren plangintzaren esparruan, klausula sozialak eta ingurumen-arlokoak aplikatzeko beharrezkoak diren proposamenak egitea eta ezartzeko "ni-txoak" edo aukera-arloak aurreikustea.
- Jarraibidearen ezarpena hobetzeko egitura-proposamenak, antolamendu-proposa-menak eta/edo proposamen ekonomikoak egitea.

Aholkatzeakoak:

- Udal-kontratazioak egiten dituzten organoei eta teknikariei klausula sozialak txe-rtatze erabili beharreko tresnen inguruko aholkularitza eta, bereziki, laneratze-en-presen, enplegu-zentro berezien, irabazi-asmorik gabeko erakundeen, enpresa eta erakunde horien lan-esparruen, udal-arlo bakoitzeko enplegu-nitxoan eta bidezko merkataritzako produktuak merkaturatzen dituzten erakundeen inguruko aholkula-ritza eskaintzea.

- Udalaren sailen aurrean, "Erreserba" epigrafepean klausula sozialak ezartzeko enplegu-nitxo berriak irekitzeko bitartekari-lanak egitea, eta prozesu hori zaintzea eta aholkularitza eskaintzea.
- Udal-kontratazioak egiten dituzten erakundeei eta teknikariei baldintza-agirietan klausula sozialak eta ingurumen-arlokoak txertatzeko aukeraren eta horiek aplikatzeko zirkunstantzien inguruko aholkularitza eskaintzea.
- Ingurumena neurririk handienez errespetatzen duten teknologia, produktu eta zerbitzuei buruzko kontsulta teknikoei eta merkatuaren egoerari eta erakunde hornitzaileen zerrendari buruzko kontsultei erantzuna ematea.

Erregistratu, ebaluatu eta informatzekoak:

- Sei hilean behin, Udalaren kontratu-jarduera erregistratzea (klausula sozialei eta ingurumen-arlokoiei dagokienez), eta, horretarako, betearazpen-baldintza berezien aplikazioari eta erreserba-kontratuei buruzko datuak bilduko dituen taula/txosten bat lantzea.
- Jarraibidearen ezarpena aztertzea, eta, horretarako, baldintza-agirietan klausula sozialak eta ingurumen-arlokoak txertatzeko prozesua kontrolatzea eta egindako kontratuak ebaluatzea.
- Jarraibidearen ezarpen eta betetzeari eta klausulen eta horien prozeduren betetzeari buruzko urteko txosten bat egitea.

2.6.2. Informazioa

Jarraibide hau garatu eta betetzeko ekintzen plangintza eta behar bezalako egikaritzea ziurtatze aldera, Batzorde Teknikoko zerbitzuek Kontratazio Zerbitzuaren bitartez Sail bakoitzak egin beharreko kontratuei buruzko informazioa (kontratuen xedea eta oinarrizko ezaugarriak adierazita) behar den denborarekin lortzeko egokienak diren formulak hartuko dira.

Ekitaldi bakoitzaren amaieran, Jarraibidearen ezarpen eta betetzeari buruzko txosten bat aurkeztu beharko dute sail, erakunde autonomo eta udal-sozietate guztiek.

3. PRESTAKETA FASEA

3.1. Kontratazio-dosierrari hasiera emateko memoria/txostena

Udalaren kontratazio-prozedurei hasiera emateko memoriak kontratuaren eragin soziala eta ingurumen-arlokoa eta, hala badagokio, kontratuaren xedea osatzen duten premiei erantzuteko alternatibarik egokienak bilduko ditu nahitaez.

Alternatiba horiek kostu bereziki handikoak badira, zirkunstantzia horrengatik baztertu eta dosierra izapidetzen jarraitu aurretik horren berri eman beharko zaio kontratazio-organoari, dosierrari gaineratuko zaion txosten baten bidez.

Administrazio-baldintza partikularren agiria erabiltzen, prozedurari eta kontratuari lotutako alderdi sozialak eta ingurumen-arlokoak ikusteko eta horien jarraipena egiteko koa dro bat txertatuko da.

3.2. Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedearen definizioak argi eta garbi egin beharko dio erreferentzia, ezinbestean, kontratatu behar diren produktu eta zerbitzuen balio sozialari eta ingurumen-balioari, ezaugarri jakinak aintzat harturik.

Kontratuaren xedea mistoa edo askotarikoa izan daiteke, eta ez da kontuan izango ezaugarri soziala edo ingurumen-arlokoa lehentasunezkoa ala osagarria den.

Enplegua sustatzeko edota gizarteratu eta laneratzeko ekintza publikoei zuzenean lotuta dauden kontratuen kasuan, enplegua lortzeko zailtasunik handienak dituzten kolektiboak aipatuko dira, espezifikoki edo oro har finkatuko dira eta enpresaren kaudimen teknikoan zehaztuko dira.

Kalitatearen eta prezioaren arteko erlazioak aukera ematen duenean, ingurumen-inpakturik txikiena duten produktuak edo zerbitzuak aukeratu dira, horien bizi-zikloa kontuan hartuta. Kontratuaren xedearen izenburuak ingurumen-portaera edo ingurumen-ezaugarri horren berri emango du ahal bada.

Zerbitzuen eta hornigaien kontratazioan Bidezko Merkataritzako produktuak barnean hartzen direnean, esanbidez aipatu beharko dira Bidezko Merkataritza eta nazioarteko eremuan Bidezko Merkataritzaren alde egindako adierazpenak edo ebazpenak; bereziki, Europako Parlamentuak Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruz emandako 2005/2245 (INI) Ebazpena eta Gasteizko Udalaren 2008ko azaroaren 21eko Erakunde Adierazpena aipatu beharko dira.

Genero-ikuspegia kontratuaren xedearen ezaugarri tekniko bat denean, esanbidez aipatu beharko da definizioan. Genero-ikuspegia duen kontratu-xedea aukeratzeak adierazten du kontratazio-organoak esanbidezko borondatea duela produkturen bat eskuratu, obra bat egikaritu edo zerbitzu bat emateko garaian kontratuaren definizioan eta/edo deskribapenean genero-berdintasunari lotutako ezaugarri teknikoak txertatzeko.

3.3. Zehapenak – Klausula sozialak eta ingurumen arlokoak ez betetzearen ondorioa

Administrazio baldintzen orrietan adierazi beharko da kontratuetako klausula sozialen eta ingurumenaren arlokoen bitartez hartzen diren konpromisoak funtsezko betebeharrak izango direla, eta, horiek bete ezean, kontratazio-organoak aukeran izango duela kontratua bertan behera utzi —Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 223.f) artikulua araberako ez bete erruduna dela eta— edo hura gauzatzen jarraitu, kontratuaren aurrekontuaren % 3tik % 10era bitarteko zigorra jarri ondoren —lege beraren 212.1 artikulua ildotik—.

Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak betetzen ez badira, kontratazio-organoek kontuan izango dute administrazio-klausula partikularren orrietan edo dokumentazio baliokidean aurreikusitako luzapenak erabakitzeko orduan.

Ez da halako luzapenik hitzartuko kontratuari atxikitako langileen lan-baldintzen —kontratua esleitu zen unean aplikatzekoa zen hitzarmen edo itunean jasotako zeudenen— alde bakarreko murrizketak egin dituzten entitateekin.

Arlo sozialean (II. eta III. eranskinak) nahiz ingurumenaren arloan hartutako konpromisoak oro utziko dira jasota kontratua formalizatzeko administrazio-agirian, kontratua gauzatzeko aldian egiaztatu beharko baitu enpresa adjudikaziodunak horiek bete dituela.

3.4. Preskripzio teknikoak

Preskripzio teknikoak, ahal den neurrian, irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren arloko irizpideak aintzat harturik definituko dira —desgaitasuna dutenen aukera-berdintasunaren, diskriminaziorik ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren abenduaren 2ko 51/2003 legeko definizioen ildotik—, eta, kontratuaren xedek ingurumenari eragiten badio edo badiezaioke, iraunkortasunaren eta ingurumena babestearen arloko irizpideak aplikatuko dira.

3.4.1. Sozialak

Preskripzio teknikoak irizpide sozialak kontuan hartuta definitu beharko dira, betiere kontratuaren xedek aukera ematen badu. Horrela, beraz, gizartearen interes orokorrak (gizar-

teratzeari, genero-berdintasunaren sustapenari, ekonomia sozialari eta laneratzeari lotutakoak) edota zirkunstantziarik txarretan dauden langileen lan-baldintzen hobekuntzari lotutako balioak sustatzeko helburua duten irizpideak hartu beharko dira kontuan.

Genero-berdintasunari dagokionez, preskripzio horiek honako alderdi hauei lotuta egon daitezke: emakumeek lan-merkatuan sartzeko aukeraren sustapena; emakumeek gizonen lanbidetzat hartu izan ohi diren lanbideetan jarduteko aukeraren sustapena; gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden emakumeek lan-merkatuan sartzeko aukeraren sustapena; emakumeen lan-osasuna (laneko arrisku eta gaixotasunen prebentzioa emakume asko dauden lanpostuetan, haurdunaldia eta amatasuna, sexu-jazarpena, jazarpen sexista edo sexu-arrazoiengatik jazarpena); emakumeen eta gizonen proportzio orekatua erabakiak hartzean; bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko neurriak; prestakuntza-moduluetan genero-ikuspegia txertatzeko aukera eta abar.

Bidezko Merkataritzako produktuak aipatzen direnean, Europako Parlamentuak Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruz emandako 2005/2245 (INI) Ebazpenaren 2. artikuluan bildutako estandarrak bete beharko dituzte produktu horiek. Bidezko Merkataritzako Munduko Erakundeak (WFTO) eta Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundeak egiaztatutako erakundeek inportatzen eta banatzen dituzten edota Bidezko Merkataritzako Fairtrade (FLO) zigilua duten produktuek irizpide horiek betetzen dituztela ulertuko da. Beste operadore ekonomiko batzuek estandar horiekiko baliokidetasunak frogatu beharko dituzte frogabide egoki baten bidez.

3.4.2. Ingurumen-izaerakoak

Preskripzio teknikoak ingurumen-iraunkortasunari eta ingurumen-babesari lotutako irizpideak kontuan hartuta definitu beharko dira ahal bada. Preskripzio horiek honako alderdi hauei lotuta egon daitezke: ingurumen-arauen betetzea, produktu jakin batzuen erabilera, produkzio-prozesuak, produktuaren ingurumen-ezaugarriak eta abar.

Preskripzio teknikoak arauak, egokitasun-dokumentuak, zehaztapan tekniko komunak edo erreferentzia teknikoko sistemak kontuan hartuta definitzen direnean, kontratatu nahi diren produktu, zerbitzu eta obren ingurumen-ezaugarriak –besteak beste– barnean hartzen dituztenak aukeratuko dira ahal bada.

Etiketa ekologikoak dituzten produktu edo zerbitzuen preskripzio teknikoak definitzen direnean, etiketa horiek emateko kontuan hartu diren ezaugarri nagusiak txertatuko dira agirian, betiere kontratuaren xedeari lotuta badaude eta kontratatu beharreko produktu eta zerbitzuaren ezaugarriak definitzeko egokiak badira.

Zehaztapan teknikoen betetzearen frogabide gisa etiketa bat onartu ahal izango da, eta eskatu. Nolanahi ere, berriazko etiketa bat eskatzen delarik, produktu edo zerbitzuek bete behar baliokideak betetzen dituztela egiaztatzen duten etiketak oro onartu beharko dira.

Gainera, bestelako frogabide egokiak ere onartu ahal izango dira, hala nola enpresa fabrikatzailearen dosier teknikoa, baldin eta hartara frogatuta geratzen bada produktu eta zerbitzuek etiketa ekologikoan galdatzen diren betebeharrak betetzen dituztela.

Kontratuarekin bete beharreko premiak ere eskakizun funtzional eta/edo errendimendu-eta emaitza-eskakizun gisa deskribatuko dira ahal bada. Hornitu beharreko produktuen eta obra-proiektuak osatzen dituztenen iraupena hartu beharko da kontuan.

Ingurumena kaltetu dezaketen eta, horren ondorioz, kontratuaren betearazpenari zuzenean lotutako ingurumen-kudeaketarako neurriak behar dituzten hornidura-kontratuez bestelako kontratuetan, ingurumen-kudeaketarako neurri horiek preskripzio teknikoan agirian azaldu eta eskatuko dira. Eta betetzeko gaitasunaren egiaztapena kaudimen tekniko edo profesionalaren baldintza gisa eskatuko da.

Lehiaketa bakoitzeko baldintza teknikoan orrietan nahitaezkoak edo balioestekoak diren ingurumen-zehaztapenen zerrenda emango da, eta behar diren ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte lehiatzen diren enpresek horiek betetzen dituztela egiaztatzeko. Hainbat produktu, zerbitzu edo obra hornitzeko enpresen zerrendak zehazteko hainbat adibide ikus daitezke IV. eranskinean adierazten diren web-orrietan.

3.5. Kaudimen teknikoa

3.5.1. Sozialak

Gaitasun tekniko sozialaren eskakizuna era arrazoituan eta gardentasun-baldintzetan egingo da, eta onarpenerako erabiliko diren irizpide objektiboak eta eskatutako gaitasun espezifikoen maila dosierrean justifikatu eta baldintzen agirian adierazi beharko dira.

Kontratuaren xedea gizarteratzeari eta laneratzeari lotuta dagoen kasuan, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten kolektiboen gizarteratze eta laneratzean esperientzia izateko edota enpresaren edo erakundearen helburuetako bat lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta laneratzea izateko eskatu ahal izango da.

Egiaztapena egiteko, honako aukera hauek egongo dira:

- a) Desgaituak laneratzeko enplegu-zentro berezi gisa sailkatzea, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuari jarraiki.
- b) Laneratze-enpresa gisa sailkatzea, laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen eta horietan sartzeko prozedura eta horien erregistroa ezartzen dituen Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuari jarraiki, edota tipologia horretako enpresentzat ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea, laneratze-enpresen erregimena arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legeari jarraiki.

- c) Gizarteratzearen eta laneratzearen arloan eskumena duten erakunde publikoek sinatu dituzten eta erakunde lizitatzailerean ibilbidea eta esperientzia egiaztatzen duten ziurtagirien bidez.
- d) Gizarteratzeari eta laneratzeari espezifikoki lotutako kontratuaren prestazioan parte hartuko duten eta enpresan integratuta zein integratu gabe egongo diren langileen zerrendaren bidez; nolahi ere, horien titulazioa, lanbide-esperientzia eta egindako antzeko lanak adierazi beharko dira.
- e) Kontratuan gizarteratzeari eta laneratzeari dagokion zatia erregistratuta edo egiaztatuta dauden eta arlo horretan esperientzia duten erakundeekin hitzartzeko edo azpikontratatzeko konpromisoaren bidez.

Genero-ikuspegia txertatuz eman beharreko prestazio orokor bati lotutako kontratuen kasuan, kontratu horiek behar bezala betetzeko berdintasunaren arloko prestakuntza, esperientzia edo trebakuntza beharrezkoak direnean eta hori neurrizkoa denean eta justifikatuta dagoenean, honako alderdi hauetako bat edo batzuk eskatuko dira, kontratatu beharreko zerbitzuaren arabera:

- a) Enpresak berdintasunaren arloan duen esperientzia eta ibilbidea, azken 3 urteetan egin diren eta kontratuaren xede denaren antzeko izaera eta zenbatekoa duten zerbitzu edo lan nagusien bidez.
- b) Inplikaturako talde teknikoak berdintasunaren arloan duen gaitasuna; nolahi ere, titulazioa, prestakuntza eta esperientzia espezifikoa adierazi beharko dira.
- c) Enpresak erakunde eskudun batek eman duen eta genero-berdintasunarekiko konpromisoa egiaztatuko duen ziurtagiri bat lortu izana, edota ziurtagiri hori lortzeko beharrezkoak diren baldintzen betetzea edozein frogabiderekina egiaztatzea.

3.5.2. Ingurumen-izaerakoak

Kontratuak betetzeko ingurumen-arloko gaitasun tekniko berezia eskatzen denean edo gaitasun hori izatea garrantzitsua denean, administrazio-klausula partikularren agiriak kontratua betetzeko esperientzia zehatza eta jakintza teknikoak eta horretarako beharrezkoak diren ekipo materialak izatea ezarriko du kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintza gisa.

3.5.3. Hizkuntza-izaerakoak

Honako hauek dira kontratu guztiek bete beharreko arauak: hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean eta hori garatzen duten arauetan erregulatua, hala nola 1997ko urtarrilaren 20an onartutako Vitoria-Gasteizko Udalean eta Udalerrian Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeari Buruzko Udal Ordenantza eta 2013ko abenduaren 20an Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako

Vitoria-Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren (2013-2017) atal den Hizkuntza Ofizialak Vitoria-Gasteizko Udalean erabiltzeko irizpideak.

Horrez gain, EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak xedatutakoa ere kontuan hartu beharko da. 18. artikuluan administrazioetako normalizazio planek jaso beharko dituzten gutxieneko edukiak zehazten ditu eta horien artean ondorengoa agertzen da: “Kontratazio-arloan erabiliko diren neurriak; batez ere, hirugarren batzuek herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu publikoak eskaintzen dituztenean, dagokion administrazioak berak bete behar lituzkeen antzeko hizkuntza baldintzak berma daitezten.” —18 d) atala—. Hori dela eta, administrazioaren eta honen erakunde autonomoen kontratazioetarako pleguetan puntu berezi bat jasoko da eta bertan adieraziko da, kasuan kasuko kontratuari apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 18 d) atalean ezarritako neurriak dagozkion ala ez.

3.6. Kontratu erreserbatuak

Gasteizko Udalak kontratu jakin batzuk edo horietako sorta jakin batzuk esleitzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidearen gutxieneko erreserba-portzentajeak finkatuko ditu Laneratze-enpresen erregimena arautzen duen abenduaren 13ko 44/2007 Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten enplegu-zentro berezi edo laneratze-enpresentzat, edo kontratu horiek enplegu babestuen arloko programen baitan gauzatzeko gutxieneko erreserba-portzentajea, baldintzatat jarririk enplegu-zentro berezietan, laneratze-enpresentan edo programetan enplegatutako pertsonen gutxienez ehuneko 30ek ezintasunen bat edukitzea edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran egotea, eta akordioan bertan finkatu ditu aurreko hori bermatzeko gutxieneko baldintzak.

Helburutzat gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen laneratzea edo gizarteratzea duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat erreserbatuko dira kontratu jakin batzuk esleitzeko prozedurak, kontratu horiek enplegu babestuen testuinguruan gauzatzea aurreikusten delarik.

Udal sailek urtez urteko aurrekontu-proposamenetan adierazi beharko dute zein diren hurrengo ekitaldian halakoentzat erreserba litezkeen kontratuak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko bosgarren xedapen gehigarriaren ildotik, zenbateko-mugarik gabe aplikatu ahal izango da enplegu-zentro berezientzako, enplegu babestuko programetarako eta gizarteratze enpresentzako erreserba langileen gutxienez 100eko 30 desgaituak direlarik.

Gizarteratzearen eta laneratzearen arloan diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako erreserba kontratu txikiaren eta/edo zenbatekoa dela-eta publizitaterik gabe negoziatutako prozeduraren bidez baino ez da aplikatuko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 139. eta 169. artikuluetan ezarritakoari jarraiki.

Erreserbatu beharreko kontratuen portzentaje ekonomikoa —Udalaren kontratazio-zifra orokorraren gainean— Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko eta Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariak edo haren ordezkoak finkatuko du, aldian-aldian, aurreko aldiko kudeaketa-txostenak aztertu ondoren, eta Erosketa eta Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra egiteko Planean (EKIP) jasoko da. Portzentaje horrek gutxienez kontratazio-zifra orokorraren % 3 izan beharko du.

Zenbatekoak bat etorri beharko du enplegu-zentro berezien, laneratze-enpresen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen negozio-bolumenarekin, kudeaketa-ahalmenarekin eta enplegua sortzeko ahalmenarekin, eta, horretarako, lan-merkatuaren egoera eta Gasteizko udalerrian gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen laneratze-premiak hartuko dira kontuan.

Kontratuaren xedeak pertsona kopuru esanguratsu baten kontratazioa eragiten duenean, kontratu hori esleitzeko prozeduretan parte hartzeko aukera erreserbatu egingo da, eskatu beharreko laguntza- eta jarraipen-premien dimentsio egokia ahalbidetzeko.

Kontraturik egokien erreserba Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko eta Gizarte Politiken Saileko zinegotzi ordezkariak edo haren ordezkoak egingo du, dagozkien gobernu-arloetako arduradunei entzun ondoren. Horretarako, titularrek beren proposamenak egin beharko baitituzte, eta batzorde teknikoak zehaztu.

Erreserbaren onura jasoko duten erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-zentro berezien eremuko zein laneratze-enpresen eremuko baldintzak eta araudiak bete beharko dituzte. Irabazi-asmorik gabeko erakundeek legez eratuta egon beharko dute, eta gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonen laneratzea eta gizarteratzea izango da haien xedea.

Erreserba kontratuaren izenburuan eta, hala badagokio, lizitazio-iragarkian aipatu beharko da.

4. ESLEIPEN FASEA

4.1. Esleitzeko irizpideak

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 150. artikuluari jarraiki, proposamenak balioesteko eta ekonomikoki abantailatsuena izango den eskaintza finkatzeko, kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideak hartu beharko dira kontuan, hala nola ingurumen-ezaugarriak edo kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradunek osatzen dituzten biztanleria-kategoria bereziki behartsuei dagozkien eta kontratuaren zehaztapenetan definituta dauden premiei erantzuten dieten eskakizun sozialen gogobetetzeari lotutako ezaugarriak.

Alderdi sozialak, genero-berdintasunaren alorrekoak, bidezko merkataritzaren inguruak, hizkuntza-irizpideei dagozkienak nahiz ingurumenaren alorrekoak aintzat hartzen dituzten hobekuntza edo aldagaiak kontuan hartu ahal izango ditu kontratazio-organoak, kontratuaren xedearekin ikustekorik dutelarik —SPKLTBarekin bat etorritz—.

Kontratua esleitzeko balioespen-irizpide bat baino gehiago kontuan hartu behar denean, proposamenak beteezintzat jotzeko parametro objektiboa izango da hitzarmen kolektiboaren arabera dena delako kategoria profesionalean gutxieneko diren soldata-kostuetatik edo baldintza-orrietan adierazitako ordainsarrietatik beherako prezioa ematea.

Irizpide sozialak, genero-berdintasunaren alorrekoak, bidezko merkataritzaren inguruak, hizkuntza-irizpideei dagozkienak nahiz ingurumenaren alorrekoak aintzat hartzen direlarik, kontratuaren izaera eta xedearen arabera izan beharko du horren balioespenak, eta kontratuaren beharrei eta interes publikoari erantzun beharko die.

4.1.1. Esleitzeko irizpide sozialak

Kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradunek osatzen dituzten biztanleria-kategoria bereziki behartsuei dagozkien premiei erantzutera zuzendutako kontratuen administrazio-klausulen agiriekin proposamenak balioesteko irizpide bat baino gehiago biltzen dituztenean, eskakizun sozial horien gogobetetzeari lotuta egongo diren eta kontratuaren zehaztapenetan definitutako premiei erantzungo dieten irizpideak egongo dira horien artean.

Esleitzeko irizpideek kontratuaren xedeari eta premiei lotuta egon beharko dute, zehaztapen teknikoetan nola dauden definituta kontuan hartuta.

Esleitzeko irizpide sozialekin administrazio-klausulen agirian adierazitako esleipen-baremoaren % 10etik % 25era bitarteko haztapena izango dute.

Balioespen-irizpide horiei lotutako proposamenek Jarraibidearen I. Eranskina (esku-hartzearen xede izan daitezkeen kolektiboak zehazten dituena) hartuko dute erreferentzia gisa, eta, kasu horietan, administrazio-baldintzen agiriari gaineratuko zaizkio.

Kontratuaren betearazpenean aplika daitezkeen esleipen-irizpide sozialak honako alderdi hauei lotuta egon daitezke, besteak beste:

4.1.1.1. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzea

Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten kolektiboetako pertsona gehiago hartzeko konpromisoa hartzen duen erakunde lizitatzailerak puntuazioaren % 25era bitarte balioetsi ahal izango da.

Gutxienezko ehunekoak betearazpen-baldintzetan nahitazeko gisa ezarritakoa baino handiagoa izan beharko du. Gainerakoek beheranzko eta proportziozko puntuazioa lortuko dute, honako formula honi jarraiki:

$$PL = \frac{NPD}{NMPD} \times Z$$

PL: erakunde lizitatzailerak lortutako puntuazioa.

NPD: lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten eta erakunde lizitatzailerak hartutako konpromisoaren arabera kontratatuko dituen pertsonen kopurua.

NMPD: lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten eta erakunde lizitatzailerak hartutako konpromisoaren arabera kontratatuko dituen pertsonen kopurua.

Z: atal honetan lor daitezkeen puntuaziorik handiena.

4.1.1.2. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna hobetzea

Gizarteratzea eta laneratzea kontratuaren xedeetako bat den kasuetan baino ezin izango da puntuazioaren % 25era bitarte balioetsi erakunde lizitatzailerak aurkeztutako gizarteratze- eta laneratze-proiektua, betiere betearazpen-baldintza gisa ezarritakoa baino ehuneko handiagoa kontratatze konpromisoa hartzen badu.

Horretarako, pertsonen enplegarritasuna zein gizarteratzea eta laneratzea hobetzeko neurriak frogatuko dituzten honako atal hauetako batean edo batzuetan banakatu ahal izango da puntuazioa:

a) Prestakuntza-plan bat izatea. Honela balioetsiko da:

- Kontratuaren ordu guztien % 5 gutxienez esku-hartzearen xede izan daitezkeen kolektiboaren prestakuntzara bideratzeko konpromisoa hartzen duen erakunde lizitatzailerak puntuatuko da.

- Kontratuaren ordu guztien % 5 prestakuntzara bideratzen duen erakundeari puntu kopuru jakin bat emango zaio.
- Gutxieneko % 5 horretatik gorako portzentajezko puntu bakoitzeko puntu kopuru jakin bat esleituko da proportzionalki, klausula honetan ezarritako gehienekora iritsi arte.

b) Erakundeak bere profesional batzuk eta kontratazioaren xede den talde profesionaletik kanpoko langile batzuk kontratatutako pertsonen enplegarritasuna hobetuko duten laguntza eta lan-orientabidea eskaintzera zuzentzeko hartutako konpromisoa.

- Kontratutako gehienez ere 10 pertsonarentzako profesional 1 (lanaldi osoan) zuzentzeagatik puntu kopuru jakin bat emango da guztizko puntuaziotik. 10 pertsona baino gehiago kontratatzen badira, 1/10 ratioari jarraituko zaio.

c) Lurraldean beste erakunde batzuekin koordinatzeko proposamena, kontratuaren xede diren laneratze-zereginak egiteko.

- Kontratuaren xedearekin zuzenean lotutako gizarteratze eta laneratzearen eremuko erakundeekiko (hots, laneratze-enpresa, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta enpleguzentro bereziekiko) akordioak edo hitzarmenak aplikatzeko konpromisoagatik puntu kopuru jakin bat emango da (puntuazio bat akordio edo hitzarmen bakoitzeko).

4.1.1.3. Genero-berdintasunaren alorreko irizpideak

Erakunde lizitatuak aurkeztutako eskaintzan genero-berdintasuna sustatzea puntuazioaren % 25era bitarte balioetsi ahal izango da, eta puntuazioa honako alderdi hauetako batean edo batzuetan banakatuko da:

- a) Kontratua betetzeko betearazpen-baldintza gisa ezarritakoa baino handiagoa eta EINaren azken BAlan dagokion sektorerako sexuaren eta jarduera-adarraren arabera jasotako batez besteko ehunekoa baino gutxienez bost puntu handiagoa izango den emakume kopuru bat kontratatzen duen erakunde lizitatuari puntuazio jakin bat emango zaio (adierazitako ehunekoa esanbidez adierazita agertuko da agirian, argitaratzeko agintzen den dataren arabera). Gainerakoek beheranzko eta proportziozko puntuazioa lortuko dute, honako formula honi jarraiki:

$$PL = \frac{NM}{NMM} \times Z$$

PL: erakunde lizitatuak lortutako puntuazioa.

NM: Erakunde lizitatuak hartutako konpromisoaren arabera kontratatuko dituen emakumeen kopurua.

NMM: Erakunde lizitatuak eskaintzarik onenean hartutako konpromisoaren arabera kontratatuko diren emakumeen kopurua.

Z: atal honetan lor daitezkeen puntuaziorik handiena.

- b) Erantzukizun handiko edo kudeaketako lanpostu kualifikatuetan —kontratua gauzatzeko baldintzatzat finkatuaz goitik— emakume gehien kontratatzeko konpromisoa hartzen duen erakunde lizitatzailerari puntuazio bat emango zaio. Klausula hori emakumeak nagusi diren jarduera-sektoreetan aplikatuko da bereziki. Gainerako erakunde lizitatzailerak beheranzko eta proportziorako puntuazioa lortuko dute, honako formula honi jarraiki:

NMR

$PL = \text{-----} \times Z$

NMRM

PL: erakunde lizitatzailerak lortutako puntuazioa.

NMR: Entitate lizitatzailerak erantzukizun handiko edo kudeaketako lanpostuetan kontratatzeko konpromisoa hartzen duen emakume-kopurua —kontratua gauzatzeko baldintzatzat finkatuaz goitik—.

NMRM: Entitate lizitatzaileraren eskaintzarik hoberenak erantzukizun handiko lanpostuetan kontratatzeko konpromisoa hartzen duen emakume-kopurua —kontratua gauzatzeko baldintzatzat finkatuaz goitik—.

Z: atal honetan lor daitekeen puntuaziorik handiena.

- c) Puntuazio bat emango zaio entitate lehiazailerak enplegua lortu, sustatu eta bertan irauteari, lanbide-prestakuntzari, ordainsariei, lanaren kalitateari eta egonkortasunari, lanaldiaren iraupenari eta antolamenduari eta antzekoei dagokienez kontratua gauzatzeko aplikatzeko konpromisoa hartzen duen neurrien programa diseinatu eta aurkezteari.

Puntuazioa honako alderdi hauetan oinarrituta lortuko da:

1. Neurrien programa berdintasunaren arloko prestakuntza espezializatua (gutxienez 150 orduko prestakuntza-ikastaroa, erakunde ofizial batek –Unibertsitateak edo administrazio publikoak– egiaztatua) eta/edo administrazioan, enpresetan edo beste erakunde batzuetan gutxienez 2 urteko esperientzia egiaztatua (berdintasun-teknikari gisa) duten langileek, edota berdintasunaren eremuan gutxienez 2 urteko lanbide-ibilbidea duen aholkularitza-enpresa batek egin izana.
2. Berdintasun Plana lantzeko prozesuan enpresako plantillak parte hartu izana eta/edo langileen legezko ordezkariekin kontsultatu izana —ziurtagiria aurkeztuz egiaztatu beharko da—.

4.1.1.4. Bidezko Merkataritzako irizpideak

Gehienez puntuazio osoaren % 25era arte balioetsi ahal izango dira bidezko merkataritzako produktuak erabiltzeko konpromisoa bere egiten duten eskaintzak:

- a) Diru-kopuru jakin batera arte.
- b) Oinarrizko lizitazio-oinarriaren gaineko portzentaje jakin bat.

Kontratua gauzatzeko baldintzetan nahitaezko gutxieneko kopuru edo portzentajerik ezarri bada, kopuru edo portzentaje handiagoak eskaintzen dituen entitate lehiatzaileari puntuazio jakin bat emango zaio. Gainerako eskaintzek puntuazio proportzionala lortuko dute, eskaintzari hoberenaren aldean.

4.1.2. Esleitzeko ingurumen-irizpideak

Kontratuaren administrazio-klausulen agiriekin, proposamenak balioesteko irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen direnean, produktu, obra edo zerbitzuaren ingurumen-alderdiei lotuta dauden eta preskripzio teknikoaren agirian, onartutako proiektuan edo arau sektorial aplikagarrietan gutxieneko eskakizun gisa aurreikusitakoak baino abantaila handiagoak ematen dituzten eskaintzak hautatzeko aukera emango duten irizpideak jasoko dituzte irizpideen artean.

Esleitzeko irizpideek kontratuaren xedeari eta premiei lotuta egon beharko dute, zehaztapen teknikoetan nola dauden definituta kontuan hartuta.

Eskaintako azken produktu edo zerbitzuan zein produktua lantzeko prozesuan edo kontratua betearaztean erabiltzen diren bitarteko eta materialetan aplikatu daitezkeen ingurumen-izaerako esleipen-irizpideak honako helburu hauei lotuta egon daitezke, besteak beste:

- a) Energia-efizientziarako neurriak ezartzea eta energia-iturri berriztagarrietara jotzea.
- b) Uraren, erregaien eta lehengaien kontsumoa murriztea.
- c) Material eta produktu birziklatuak erabiltzea.
- d) Berotegi-efektua eragiten duten gasen atmosferarako emisioak murriztea.
- e) Emisio kutsatzaileak murriztu eta tratatzea, zaratari eta argi-kutsadurari lotutako emisioak barnean hartuta.
- f) Hondakinak murriztea, berrerabiltzea edo birziklatzea.
- g) Osasunerako eta ingurumenerako arriskutsuak izan daitezkeen materialak eta substantziak desagerraraztea eta/edo kontrolatzea.
- h) Produktuaren biodegradagarritasuna.
- i) Lanak eta obrak kudeatzean, gainazaleko eta lurpeko uren eta lurzoruen kalitatea eta osasungarritasuna babestea.
- j) Produktu, zerbitzu edo obren kalitate-arauetan edo etiketa ekologikoetan ezarritako baldintzak betetzea.
- k) Ekosistemen gaineko inpaktuak murriztea.

Produktu edo zerbitzuaren ingurumen-alderdi horiek Agiriari kasu bakoitzean adierazten duen haztapenaren bidez balioetsiko dira, eta objektiboak, espezifikoak eta objektiboki zenbakarriak izango dira. Era horretan, enpresa lizitatuak guztiek balioetsi behar diren alderdiak ezagutu eta modu berean interpretatu ahal izango dituzte, eta eskaintza guztien konparazio-balioespen bat egin ahal izango da.

Eskaintzak balioestean, produktu, zerbitzu edo obra baten bizi-zikloan sortutako kostu guztiak hartu beharko dira kontuan. Oro har, honako alderdi hauek biltzen ditu bizi-zikloaren guztizko kostuak: erosketa eta horri lotutako kostu guztiak (entrega, instalazioa, zerbitzuan jartzea eta abar), kostu operatiboak (energia, ordezeko piezak, mantentzea eta abar barne), bizitza erabilgarriaren amaierako kostuak (hala nola desegitea, desagerraraztea eta abar), eta ingurumen-kanpokotasunei egotzitako kostuak (hala nola berotegi-efektua duten gasen emisioak, beste emisio kutsatzaile batzuk eta abar). Kasu guztietan, moneta-balioa zehaztu eta egiaztatzeko modua izan behar da. Horri dagokionez, enpresa lehiatzaileek eman beharreko datuak zehaztuko dira baldintza-orrietan, eta datu horiek oinarritzat harturik bizi-zikloaren kostuak zehazteko baliatuko den metodoa.

IV. eranskinean hainbat produktu eta zerbitzuri aplika dakizkiekeen esleipen-irizpideen adibideak ikus daitezke.

4.2. Lehenetasun-irizpideak

Esleitzeko oinarritzat baliatzen diren irizpideak aintzat harturik onuragarrien gertatzen diren proposamenak berdintzen direlarik aplikatuko dira lehenetasun-irizpideak, kontratua esleitzeko orduan. Horretarako, baldintza-orrietan adierazi beharko da lehenetasun-irizpide hori, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren laugarren xedapen gehigarriaren ildotik.

4.2.1. Plantillaren barruan desgaitasuna duten edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden pertsonak dituzten enpresak eta irabazi-asmorik gabeko erakundeak kontratatzea

Kontratuak esleitzerakoan beren kaudimen tekniko egiaztatzeko unean plantillan langile desgaituak 100eko 2tik gorako proportzioan dituzten enpresa publiko edo pribatuek aurkeztutako proposamenek lehenetasuna izango dutela adieraziko dute kontratazio-organismoek administrazio-klausula partikularren agirietan, betiere proposamen horien baldintzak esleitzeko oinarri izango diren irizpideen ikuspuntutik abantailatsuenak direnekin pareka badaitezke.

Proposamenik abantailatsuena aukeratzean puntuazio berdina lortzen duten enpresa lizitzaile batzuek beraiekin lan-harremanak dituzten pertsonen artean desgaituak 100eko 2tik gorako proportzioan direla egiaztatzen badute, plantillako langile finkoen artean desgaitu-proportziorik handiena duen erakunde lizitzaileak izango du lehenetasuna kontratua esleitzean.

Era berean, adierazitako Laugarren Xedapen Gehigarriari jarraiki, laneratze-enpresen erregimena arautzeko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututa dauden eta araudi horretan laneratze-enpresatzat hartzeko ezarritako baldintzak betetzen dituzten laneratze-enpresek

aurkezten dituzten proposamenek kontratuak esleitzean lehentasuna izango dutela ezarriko dute kontratazio-organoek, ekonomikoki abantailatsuenak diren proposamenen baldintza beretan.

Modu eta baldintza berean, gizarte- edo laguntza-prestazioen kontratuak esleitzean nortasun juridikoa duten irabazi-asmorik gabeko erakundeek aurkezten dituzten proposamenek lehentasuna izango dutela ezarriko da, betiere horien helburuak edo jarduerak kontratua- ren xedearekin zuzeneko lotura badu (horien estatutuei eta sortze-arauei jarraiki), eta da- gokion erregistro ofizialean erregistratuta badaude. Kasu horretan, kontratazio-organoak haien kostuen arabera eskainitako prezioaren banakapenari buruzko xehetasuna aurkezte- ko eskatu ahal izango die erakunde horiei.

4.2.2. Bidezko Merkataritzako alternatiba duten produk- tuak kontratatzea

Xede gisa Bidezko Merkataritzako alternatiba duten produktuak dituzten kontratuak es- leitzean Bidezko Merkataritzako erakundetzat hartutako erakundeek aurkezten dituzten proposamenek lehentasuna izango dutela adieraziko dute kontratazio-organoek adminis- trazio-klausula partikularren agirietan, betiere proposamen horien baldintzak esleitzeko oi- narri izango diren irizpideen ikuspuntutik abantailatsuenak diren proposamenekin pareka badaitezke.

5. GAUZATZE ALDIA

5.1. Kontratua gauzatzeko baldintza bereziak

Kontratuen baldintza-agiriek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 118. artikuluko aurreikuspenei jarraiki, kontratua gauzatzeko izaera sozialeko eta/edo ingurumen-izaerako baldintza bereziak hartuko dituzte kontuan, betiere Europako Erkidegoko zuzenbidearekin bateragarriak badira.

Betearazpen-baldintza bereziak ez dira zehaztapen teknikoak, kaudimen-irizpideak edo esleipen-irizpideak izango, eta bat etorri beharko dute kontratuaren xede den prestazioaren izaerarekin.

Betearazpen-baldintza bereziak lizitazio-iragarkian eta agirietan jasoarazi beharko dira.

Baldintza-agiriek, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren 212.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki, zehapenak ezarri ahal izango dituzte betearazpen-baldintza berezi horiek betetzen ez diren kasurako, edota betearazpen-baldintza berezi horiei funtsezko kontratu-betebeharraren izaera esleitu ahal izango diete, adierazitako Legearen 223.f) artikuluan adierazitako ondorioetarako. Baldintza horien ez-betetzea kontratua suntsitzeko arrazoi gisa tipifikatzen ez denean, arau-hauste larritzat hartu ahal izango da agirietan edo kontratuan, lege-testu beraren 60.2.e) artikuluan ezarritako ondorioetarako.

5.1.1. Kontratua gauzatzeko baldintza sozialak

Kontsiderazio sozialek honako helburu hauek izango dituzte: lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegua sustatzea, merkatu horretan dagoen genero-desberdintasuna desagerraraztea, langabeziari aurre egitea, lantokiko prestakuntza bultzatzea, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzeko eskakizunaren bidez produkzio-kateko oinarrizko lan-eskubideekiko errespetua bermatzea, eta Europar Batasuneko Funtzionamendu Itunaren 145. artikuluan enplegurako zehaztutako estrategia koordinatuari dagokionez ezartzen diren beste helburu batzuk.

Baldintza sozialak, oro har, gauzatzeko langileak kontratatzea eskatzen duten eta 100.000,00 euroko edo hortik gorako (BEZ gabe) lizitazio-aurrekontua edota gauzatzeko 4 hilabetetik gorako epea duten kontratu guztietan txertatuko dira.

Enpresa esleipendunek ziurtagiri bat aurkeztu beharko dute, non ageri den langile kopuru orokorra, eta plantillan 50 pertsona edo gehiago dituztenek gutxienez plantillaren ehuneko 2a ezintasunen bat duten pertsonak direla egiaztatu beharko dute, Minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 38.1 artikuluan edo hori ordeztzen duen arauan xedatutakoaren ildotik. Aukeran, enpresa lizitatzailak salbuespen-egiaztagiri baten bitartez ziurtatu ahal izango du hori betetzen duela, edo Lan eta Gizarte Gaien

Ministerioaren apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuan edo hori ordeztzen duen arauan aurreikusten diren neurri alternatiboak betetzen dituela jasotzen duen deklarazioaren bitartez.

5.1.1.1. Enpleguari lotutako lan-baldintzak

1. Administrazio klausula partikularren orrietan kontratua gauzatzeko baldintza berezi bat jasoko da, kontratua gauzatzen esku hartu duten langileei aplikatzekoak diren lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean indarrean dauden lege eta arauetan xedatutakoa betetzeari dagokionez.

Zehazki, kontratua bere gain hartzen duen enpresa edo entitateak hura gauzaten esku hartuko duten langileei kontratuan jasotzen den jarduera sartzen deneko beheerenerako esparruko azken hitzarmen kolektiboan finkatutako lan-baldintzak aplikatzeko obligazioa duela jasoko da kontratua gauzatzeko baldintza berezian. Hitzarmen horren testuan jasotako baldintzak —indarrean den bitartean, eta berritu arte— kontratuaren xede diren jarduerak burutuko dituzten langileak enplegatutak izan ahalko direnoko gutxienerako baldintzak izango dira, baita hitzarmen horrek, Langileen Estatutuaren 86.3 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioz indarrean egoteari utzi badio ere.

2. Orobat ezarriko da kontratua gauzatzeko baldintza berezian ezen, kontratuaren xede den zentzoren baterako hitzarmen edo itunik baldin badago, bertan jasotakoak lan zentro horretako langileei aplikatu beharreko gutxienerako baldintzak izango direla, indarrean dagoen bitartean eta berritu arte, baldin eta bertan jasotako baldintzak aplikatzeko den sektoreko hitzarmenekoak baino hobek badira. Bertan jaso gabekoei dagokienez, sektoreko beheerenerako esparruko azken hitzarmen kolektiboa aplikatuko da, haren ordeztuz.

3. Orobat ezarriko da kontratua gauzatzeko baldintza berezian ezen, aplikatzeko den hitzarmen kolektiboan jasotako lan-baldintzak ezingo dituela enpresa edo entitate kontratistak bere aldetik murriztu kontratuak dirauen aldi osoan.

5.1.1.2. Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzea

Arestian adierazitako irizpideei jarraiki, eta lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten pertsonentzako enplegua sortzeari dagokionez, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak —kontratua beteko duen plantillaren gainean— gutxienez % 20ko izateko konpromisoa eskatuko zaio enpresa esleipendunari administrazio-klausula partikularren agirian⁵.

5 Kontratazioen kopurua 5 edo gehiago denean aplikatzen da automatikoki, pertsona 1 kontratatzeneko.

Edonola ere, adierazitako betebeharra ez zaie aplikatuko kontratuaren xede den prestaziora lan-kontratu mugagabeak dituzten langileak baino zuzentzen ez dituzten enpresei, eta modulatu egin beharko da kontratuaren esleipenak aurretik kontratatutako langileen subrogazioa dakarrenean. Modulazio horiek egin ondoren, nahitaezkoa izango da halako profila duten pertsonak kontratatzea —adierazitako ehunekora (% 20ra) iritsi arte—, kontratazio berriak egiten direlarik nahiz bajak edo beste ordezkutzen direlarik.

Betebehar hori —kontratatzaren diren pertsonen gutxienez % 20 lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten langabeak izatea— enplegu-zentro bereziekin, laneratze-enpresekin nahiz irabazi-asmorik gabeko gizarte-erakunde solidarioekin azpikontratatzuz bete ahal izango da, agirian eskatzen den moduan egiteko zailtasuna justifikatzen den kasuetan.

Kasu horiek salbuespen-izaera izango dute, eta dossierrean justifikatu beharko dira.

Beste arrazoi batzuegatik, eta salbuespen gisa berriz ere, horretarako emandako txosten teknikoak aztertu ondoren dagokion arloko zinegotzi delegatuak uste badu kontratuaren ezaugarriek betearazpen-baldintza hori onartu ezin dutela edota baldintza horretan aurreikusitako kontratazio-ehunekoa modulatu behar dela, zirkunstantzia hori behar bezala arrazoitu beharko da dossierrean.

Zirkunstantzia batzuk eta besteak Kontratazio Zerbitzuari jakinarazi beharko zaizkio horiek justifikatzen dituzten txostenen kopiaren bidez, era horretan Jarraibidearen betetzeaz eta ebaluazioaz arduratutako Batzordeak Jarraibidearen betetzearen jarraipena behar bezala egiten duela ziurta dadin.

Arestian adierazitako arrazoiengatik eta baldintzetan kontratazio-organismoak kontratuak enplegua sortzeko betearazpen-baldintza bereziak onartzen ez dituela uste badu, hurrengo atalean adieraziko diren baldintzetako bat gaineratzeko aukera balioetsi beharko da alternatiba gisa.

Kontratu bakoitzaren izaera eta xedea kontuan hartuta, kasu bakoitzean izaera sozialeko beste betearazpen-baldintza berezi batzuk (arestian adierazitako Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 118. artikuluko zehaztapenetan koka daitezkeen eta hainbat eremutan —hala nola enpleguaren hobekuntza eta kalitatean, emakumeek lan-merkatuan berdintasun-baldintzetan parte hartzeko aukeran, aniztasun funtzionalean, lan-egonkortasunean, enpresen gizarte-erantzukizunean, gizarteratzeko eta laneratzekeo proiektu bat izateko aukeran eta abar— eragina izan dezaketen baldintzak, alegia) txertatzearen premia, komenigarritasuna eta/edo egokitasuna balioetsi beharko dute udal-zerbitzu teknikoek eta kontratazio-organismoek.

Adierazitako kontratazioen lehentasunezko kolektiboen zehaztapena Erosketa eta Kontratazio Gizartearekiko Arduratsua eta Iraunkorra egiteko Planak finkatuko du urtean behin, Batzorde Teknikoak bere txostena eman ondoren. Txosten hori Jarraibide honen I. Eranskin gisa agertuko da, eta honako irizpide, egoera, adierazle eta eremu hauek hartuko ditu kontuan:

- Etorkinak.
- Adina.
- Gurasobakartasuna.
- Kalteberatasuna / gizarte bazterkeria.

Horretarako, **honako zeharkakotasun-irizpide** hauei jarraituko zaie:

- a) Emakumeen eta gizonen kopuru orekatua kontratazioan (emakumeak zein gizonak % 40 izango dira gutxienez, eta % 60 gehienez).
- b) Etorkinentzat erreserbatutako % 10eko kuota (hiriko etorkinen kopuruarekiko).
- c) Gizarte-zerbitzuetan laguntza eta jarraipenaren xede diren pertsonentzat erreserbatutako % 20ko kuota.

Halaber, enpresa edo erakunde esleipendunak irizpide eta betebeharrak sozialekiko konpromisoaren adierazpena (**II. Eranskina**) sinatu beharko du.

Azkenik, eta kontratuaren xedea gizarteratzea eta laneratzea edota lan-merkatuan egoera txarrean dauden pertsonen kontratazioa bada, **III. Eranskinean** ("Lan-merkatuan egoera txarrean dauden pertsonen kontratazioari eta gizarteratze eta laneratzeari dagokienez hartutako betebeharrak eta konpromisoen protokoloa") finkatutako konpromisoak bete beharko ditu enpresak.

5.1.1.3. Kontratua gauzatzeko genero-berdintasunaren alorreko baldintzak

Genero-berdintasunari dagokionez, kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek ezarriko zaizkie enpresa esleipendunei:

1. Kontratua gauzatzean, eta lanpostu kualifikatuei dagokienez, sortzen diren erantzukizun handiko edo kudeaketako lanpostuen gutxienez % 40an emakumeak enplegatu beharko dituzte.
2. 250 langiletik gorako enpresek eta Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera horretara behartuta dauden gainerakoek lege horretan ezartzen den berdintasun-plana diseinatu eta aplikatu dutela egiaztatu beharko dute.
3. Sexu-jazarpenaren, jazarpen sexistaren eta sexu-arrazoiengatik jazarpenaren prebentziorako neurriak ezarri beharko dituzte, baita, behar izanez gero, problematika horri aurre egiteko neurriak ere, kontratua gauzatzen esku hartuko duten pertsonen dagokienez.
4. Kontratua gauzatzen esku hartuko duten pertsonen bizitza pertsonala, familia-bizitza eta lan-bizitza uztartzeko neurriak ezarri beharko dituzte.

Enpresak aurkezten duen proposamen teknikoak genero-berdintasunari buruzko atal bat izan beharko du, non zehaztuko diren arlo horretan bideratuko diren neurriak.

5.1.1.4. Bidezko Merkataritzako produktuak txertatzea

Eskaintzen diren prestazioan bidezko merkataritzako produktuak sartzeko aukera ematen duten kontratuetan, eta kontratazio-organoak berariaz adierazten duen aukera hori, entitate adjudikaziodunak bidezko merkataritzako produktuak erabili beharko ditu zerbitzua eskaintzean, edo hornikuntzan. Honela ezarriko da betebehar hori:

- Kontratua gauzatzeko baliatuko diren produktu jakin batzuen gainean —ehuneko jakin bat edo dena—, zehaztu egin beharko baitira: kafea, tea, infusioak, kakaoa, azukrea, fruitu lehorrak, oihal-produktuak edo beste.
- Diru-kopuru jakin baten gainean, edo lizitazio-aurrekontu osoaren gaineko ehuneko baten gainean.

Produktu horiek bidezko merkataritzakoak direla jakitera eman beharko du entitate adjudikaziodunak. Halaber, Bidezko Merkataritzako erakunde batekin lankidetzan informazio-eta sentsibilizazio-kanpainak egiteko eskatu ahal izango zaio.

5.1.2. Kontratua gauzatzeko ingurumen-baldintzak

Ingurumen-kontsiderazioek honako hauek sustatzea izango dute helburu:

- a) Energia-aurrezpena eta -eraginkortasuna, eta energia berriztagarrien erabilera.
- b) Sortzen diren hondakinen, atmosferara botatzen diren emisioen eta uretara egiten diren isurketen murrizketa.
- c) Solteko ondasunen ontziratzea eta ematea.
- d) Erabilitako produktuak berrerabili edota birziklatzea, eta, hala badagokio, hondakinen tratamendu zuzena (baimendutako kudeatzaileen parte-hartzearekin, behar izanez gero).
- e) Hondakinen gaikako bilketa.
- f) Paperaren erabilera murriztea, eta paper % 100 birziklatua erabiltzea, kontsumitu ondorengo zuntz-edukia \geq % 65ekoa duena, eta batere klororik gabea.
- g) Edateko uraren erabilera murriztu eta bestelako ur-iturriak baliatzea.
- h) Pertsonentzako nahiz merkantzientzako mugikortasun iraunkorraren ereduak bultzatzea.
- i) Berotegi-efektuko gasen emisioen murrizketa, eta konpentsazioa.
- j) Ingurumen-kudeaketari eta ingurumen-kontrolari lotutako alderdiak biltzen dituzten lan-planak edo lan-programak lantzea.
- k) Plan edo programa horiei dagokienez, kontratuaren betearazpenak eragindako baliatuko ingurumen-inkaktuak kontuan hartuko dituzten jarraipen-txostenak aldira egiteko kontsiderazioa.

- l) Kontratua betetzean erabili beharreko garraiobideak eta/edo makineria, eta horiek ingurumena ahalik eta neurririk txikienean kaltetuz hedatu eta erabiltzeko irizpideak.
- m) Ingurumenean eragina duten produktuen kantitate egokien erabilera bermatuko duten dosi-zehaztapenen erabilera.
- n) Enpresa esleipendunak hartutako langileen ingurumen-arloko prestakuntza, kontratua bete aurretik eta/edo betetzean.
- o) Kontratututako produktu, zerbitzu eta obrek Ingurumenean eta osasunean duten eragina murrizten laguntzen duten beste alderdi batzuk.

Kontratua gauzatzeko orduan hainbat produktu eta zerbitzuri aplika dakizkiekeen ingurumen-irizpideen adibideak ematen dira IV. eranskinean.

5.1.3. Kontratazio alorreko hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak Gasteizko Udalean (Vitoria-Gasteizko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planarekin 2013-2017 bat etorritz)

Gasteizko Udaleko eta bere erakunde autonomoetako kontratazio-organismoek nahitaez sartu beharko dituzte euren kontratuetan honako elementu hauek:

1) Hizkuntza-irizpide orokorren klausula berariazko klausula administratiboetako karatuletan. Informatika-aplikazioak berak sartzan du klausula hori, hala baitago lehenetsita:

Kontratuaren esleipena jaso duen pertsona edo enpresak eta azpikontratatistak izan daitezkeen horiek kontratua gauzatzean begiratu beharko diote hizkuntza bien, euskararen eta gaztelaniaren, koofizialtasunari eta euren jarduera elebitasun irizpideen eta herritarren hizkuntza eskubideen menpe izango da, horrela zehazten baitute 10/1982 Legeak, Euskaren Erabilera Arautzeko Oinarrizkoak, Autonomia Estatutuak, 86/1997 Dekretuak, Euskadiko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, eta 2013ko Vitoria-Gasteizko Udalaren Planaren 8.9 atalak.

Kasu guztietan, pertsona edo enpresa kontratatistak edo azpikontratatista izan daitezkeen horiek kontratuaren xedea gauzatzeko egiten dituzten komunikazio orokor guztiek elebrian egon behar dute. Hurrengoak komunikazio orokorrak dira:

- Errotulazioa eta seinaleak.
- Argibideak, publizitatea, iragarkiak, zerbitzuak eskaintzeko agiriak.
- Megafoniaz ematen diren komunikazioak.
- Hartzaile jakinik gabeko gainerako komunikazio guztiak.

Hizkuntza irizpide horiek bete ezean, lizitazioaren oinarriko aurrekontuaren %1eko zigorra ezarriko da, BEZ barne. Hala ere, kontratazio-organoak, arrazoiak azalduta, huts egitea larria edo oso larria dela ebatzen badu, zigorra % 5era artekoa edo % 10era artekoa izan ahalko da, hurrenez hurren.

2) Berriazko klausula kontratu motaren arabera. Klausula hori berriazko administrazio klausulen pleguko pertsona edo enpresa kontratistaren betebeharren atalean txerta daiteke.

Hizkuntza irizpide hauen segimendua Euskara Zerbitzuak eta Kontratazio Zerbitzuak batera egingo dute.

Berriazko klausula kontratu motaren arabera:

Kontratu motaren arabera, berriazko klausula batek adieraziko du zein hizkuntza irizpide zehatz bete behar diren. Irizpideok Sail bakoitzeko zerbitzu teknikoek eta administrazio orokorreko teknikariak zehaztuko dituzte. Euskara Zerbitzuari aholkua eskatu ahal zaio kontratuaren ezaugarri teknikoak ezarri ostean eta eskaintza izapidetu baino lehen.

a) Obra-kontratua:

Kontratua betetzeko hizkuntza betebeharrak. Esleipena jaso duen pertsona edo enpresa kontratistak eta azpikontratistak izan daitezkeen horiek obretan erakusgai dauden errokulazio elementu guztietan gaztelania eta euskara erabili behar dituzte, elementu horiek barne eremuan zein kaleko informazio paneletan daudela. Herritarren eskura jarriko diren agiri eta inprimaki guztiek ere, halakorik baldin badago, euskaraz eta gaztelaniaz egon beharko dute.

Pertsona edo enpresa kontratistak bete beharko ditu zuzendaritzak idatziz ematen dizkion aginduak, jarritako seinaleak osatzeko edo egokitzeko. Seinaleak jartzeak eragiten dituen gastuak kontratistak ordaindu behar ditu.

b) Herri lanen emakida: sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak:

Esleipena jaso duen pertsona edo enpresa kontratistak eta azpikontratistak izan daitezkeen horiek obretan erakusgai dauden errokulazio elementu guztietan euskara eta gaztelania erabili behar dituzte, elementu horiek barne eremuan zein kaleko informazio paneletan daudela.

Herritarren eskura jarriko diren agiri eta inprimaki guztiek ere, halakorik baldin badago, ele bietan egon beharko dute.

Gauzatu beharreko jarduerak herritarrekin zuzeneko harremana dakarrenean, ezinbestez herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan artatu behar dute. Aukera hori ez badago, izaera orokorreko komunikazioek ele bietan egon behar dute.

c) Hornikuntza-kontratua:

Hornikuntza-kontratuetan, Udalaren irudiari eragiten dioten neurrian, euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dute produktuek kasu hauetan:

- Hizkuntza paisaiari eragiten badiote (errotulazioa, norabide-azalpenak).
- Errotulatuak izaten badira (laneko arropa).
- Berez testu idatzia nahiz ahozkoa baldin badaramate (inprimakiak, igogailuetako ahotsa).

Bestetik, produktuaren hartzailea herritarrak edo Udaleko langile guztiak edo ia guztiak badira, honako irizpideei jarraitu behar zaie:

- Udalak eskatuta diseinatzen diren produktuak, softwarea edo interfazea den kasuetan, ahozkoa zein ikusizkoa, euskaraz eta gaztelaniaz erabiltzeko moduan jarri behar dira.
- Gainerako (software) produktuetan, merkatuan baldin badaude euskaraz, horiek ere erabiltzaileak zein hizkuntzatan erabili nahi duen aukeratzeko moduan jarri behar dira.
- Catering eta antzekoek hornitzerakoan, zerbitzarien %50ek gutxienez izango du 1HE edo baliokidea.

d) Zerbitzu-kontratua, administrazio-kontratu berezia, kontratu pribatua:

Kontratuaren xedearen azken emaitza ele bietan eman behar da beti honelakoetan:

- Aurreikusten denean, osorik edo zati bat, herritarrei zabalduko zaiela.
- Edo hartzaileak haurrak edo gazteak direnean (hizkuntza alorrean gizarte eremu horiek babes berezia behar dutelako).

Kontratuaren xedearen azken emaitza egiteko, herritarrekin harreman zuzena dakarten jarduerak burutu behar badira, ezinbestez herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan artatu behar dute eta harreman horretako euskarri edo jardueretan (inkestak, galdetegiak, eztabaida taldeak, eta abar) euskararen erabilera bermatu behar dute.

e) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua:

Gauzatu beharreko jarduerak erabiltzaileekin edo kontsumitzaileekin zuzeneko harremana dakarrenean, esleipena jaso duen enpresak edo azpikontrataista izan daitezkeen horiek zerbitzu hori gaztelaniaz nahiz euskaraz emateko modua izan behar dute, eta ezinbestez erabiltzaileek edo kontsumitzaileek aukeratzen duten hizkuntzan artatu behar dituzte.

Herritarren hizkuntza eskubideak benetan betetzen direla bermatzeko, zerbitzua emateaz arduratuko den lantaldean behar den euskara gaitasuna duten langile nahikoa izango ditu kontrataistak, zerbitzua euskaraz ere egoki emateko.

f) Kontratu txikia:

Legez administrazio-plegua idatzi behar ez denez, kontratu txikien kasuan, kontuan hartu behar da kontratuaren xedea eta horretarako plegu teknikoan esleipena jaso duen kontratistaren hizkuntza betebeharrak agertu behar dira.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA.

LEHENTASUNEZKO KOLEKTIBOAK

1. Lehentasunezko kolektibo zehatzak

- 1.1. Luzaroko langabeak diren (12 hilabete gutxienez) eta lanbide-kalifikaziorik ez duten (DBH edo horren baliokidea gehienez) 45 urtetik gorako pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.2. Lanbide-kalifikazioa duten (DBHtik gorakoa edo baliokidea) eta aldez aurreko lan-esperientziarik ez duten edo 12 hilabetetik beherako lan-esperientzia duten 35 urtetik beherako pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.3. Luzaroko langabe gisa (12 hilabete gutxienez) inskribatuta dauden 35-45 urteko pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.4. Guraso bakarreko familien titularrak eta langabeak diren, eta langabezia gutxienez 6 hilabeteko aldi batean inskribatuta daramaten 45 urtetik beherako emakumeak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.5. Genero-indarkeria jasaten duten eta langabeak diren emakumeak. Genero-indarke-riaren egoera gizarte zerbitzuek edo auzitegiek egiaztatu beharko dute, eta langa-bezia-egoera, berriz, arlo horretan eskumena duen erakundeak —EAEaren kasuan, Lanbidek—.
- 1.6. Erakundeetatik datozen eta lehenago administrazio publikoaren tutoretzapean egon diren gazteak, betiere adierazitako tutoretza amaitu eta hurrengo 18 hilabeteetan gi-zarteratzeko eta laneratzeko prozesu bat hasi badute (prozesu hori erakunde publiko batek egiaztatu beharko du).
- 1.7. Aniztasun funtzionala eta % 33ko edo hortik gorako minusbaliotasuna duten eta langabezia-egoeran dauden pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak Araban).

2. Lehentasunezko beste kolektibo batzuk

Txosten arrazoitua egin ondoren (txosten hori dosierrariari erantsiko zaio, kontratazio-or-ganoak onar dezan).

- 1.1. Diru-sarrerak bermatzeko errentak edo izaera berdineko prestazioak (ekonomikoak edo bestelakoak) jasotzen dituzten pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakun-deak egiaztatuko du.

- 1.2. Gizarteratze aktiboko hitzarmen bat (LANBIDEk egiaztatua) edo arreta pertsonalizatuko plan bat (kasu horretan gizarte-zerbitzuen txostenaren bidez egiaztatuko da) izenpetu duten edota enplegu-zerbitzuetan arreta jasotzen duten pertsonak.
- 1.3. Segidan gutxienez 12 hilabetetan enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta daramaten luzaroko langabeak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.4. Langabe gisa inskribatuta dauden 55 urtetik gorako pertsonak, eta, ahal bada, erretiro-pentsiorako eskubidea sortzeko eskatutako aldian kotizatu ez dutenak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.5. Azken 10 urteetan enplegurik izan ez duten 40 urtetik gorako emakumeak, eta, ahal bada, kalifikaziorik ez dutenak (eskola-graduaturik edo DBHrik ez dutenak). Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.6. Europar Batasuneko ez den estatu bateko nazionalitatea duten eta segidan gutxienez 6 hilabetetan langabe gisa inskribatuta daramaten pertsonak, eta, bereziki, egoera dokumental irregularrean daudenak (lan-eskaintza 12 hilabetetik gorakoa denean eta araudiak ezarritako baldintzak betetzen dituztenean).
- 1.7. Segidan gutxienez 6 hilabetetan langabezia-egoeran daraman, seme-alabak bere kargu dituen eta ordaindutako jarduerarik ez duen guraso bakarreko familia bateko aita edo ama titularra, eta, bereziki, gizarte-problematiko gehigarri bat dutenak eta gizarte-zerbitzuetan arreta jasotzen dutenak. Udalaren gizarte-zerbitzuek egiaztatuko dute.
- 1.8. Mendeko kideak dituzten familia ugarietan bizi diren, gizarte-problematika gehigarri bat duten eta gizarte-zerbitzuetan arreta jasotzen duten pertsonak. Udalaren gizarte-zerbitzuek egiaztatuko dute.
- 1.8. Lan egiteko eta bizitzeko baimena berritu behar duten pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du.
- 1.9. Droga-mendetasuneko arazoak edo beste adikzio-arazo batzuk dituzten eta errehabilitatzeko edo gizarteratzeko prozesuan dauden pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (Osakidetzaren Adikzioentzako Orientazio eta Tratamendu Zentroak EAEn).
- 1.10. Espetxean dauden pertsonak, beren espetxe-egoerak enplegu bat izateko aukera ematen dienean. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du. Pertsona hori hirugarren mailako espetxe-erregimenean dagoela adieraziko duen dokumentazioaren bidez egiaztatuko da.
- 1.11. Luzaroko langabe gisa inskribatuta dauden 35 urtetik beherako pertsonak. Arlo horretan eskumena duen erakundeak egiaztatuko du (LANBIDE erakundeak EAEn).
- 1.12. Antzeko izaera duten eta kalteberatasun edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden beste kolektibo batzuk. Kasu horretan, gainera, txosten arrazoitua Batzorde Teknikoak onartu beharko du.

II. ERANSKINA

IRIZPIDE ETA BETEBEHAR SOZIALEKIKO KONPROMISO ADIERAZPENA

.....jaunak/andreak (NAN:.....),
..... enpresaren (administratzaile, kudeatzaile, legezko ordezkari) gisa diharduelarik, eta aski ahalmen duelarik ekintza honetan bere burua horretara behartzeko, bere erantzukizunpean deklaritzen eta adierazten du:

“.....-(a)(r)en kontratazioa arautu behar duten administrazio-klausula partikularren agiriaren” I. Eranskinean ezarritako edukiak oso-osorik ezagutzuz eta onartuz, horiei jarraiki, adierazitako agirian ezarrita dauden kontratuaren betearazpen-baldintza berezietan dagokienez eta, hala badagokio, izaera sozialeko esleipen-irizpideei dagokienez:

1. Enpresak konpromisoa hartzen du kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren lanpostuen % X enplegua lortzeko zailtasunak dituzten (edo gizarte-bazterkeriako arriskuan edo egoeran dauden) pertsonentzat erreserbatzeko, edota lizitazio-aurrekontuaren % X laneratze-enpresa batekin edo enplegu-zentro berezi batekin azpikontratatzeko.
2. Enpresak konpromisoa hartzen du kontratua beteko duen plantillan % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonak gutxienez % X-(e)ko proportzioan txertatzeko, edota urtarilaren 14ko 27/2000 Errege Dekretuan aurreikusitako neurri alternatiboak betetzeko.
3. Kontratua gauzatzeko duen plantillan gutxienez % 40 emakumeak sartzeko konpromisoa hartzen du enpresak, eta, era berean, kontratua gauzatzeko sortzen diren lanpostu kualifikatu, erantzukizun handiko edo kudeaketakoetan ere, gutxienez % 40 emakume.
4. Enpresak konpromisoa hartzen du emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean eta emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako printzipio eta betebeharrak betetzeko. Enpresak, halaber, 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitako Berdintasun Plana diseinatu eta eraginkortasunez aplikatzeko konpromisoa hartzen du —legeak horretara behartzen duelarik—, edo, bestela, proposamen teknikoan adierazi dituen berdintasuna sustatzeko neurriak gauzatzeko. Azkenik, sexu-jazarpenaren, jazarpen sexistaren eta sexu-arrazoiengatikoko jazarpenaren prebentziorako neurriak diseinatu eta aplikatzeko konpromisoa hartzen du, baita proposamen teknikoak jasotzen diren bitzta pertsonala, familia-bitzita eta lan-bitzita uztartzeko neurriak ere.

5. Enpresak konpromisoa hartzen du produkzio-kate osoan oinarrizko lan-eskubideak errespetatzeko, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak betetzeko eta kontratua betetzean Bidezko Merkataritzako produktuak lizitazio-aurrekontuaren % X-(e)ko zenbatekoan erabiltzeko.
6. Administrazio-klausula partikularren orrietan eta baldintza partikularren orrietan finkatutako betebeharrak betetzeko konpromisoa hartzen hartzen du enpresak.
7. Era berean, euskararen sustapenarekiko konpromisoa erakusten du enpresak, kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko den hizkuntza-gaitasuna duten langileak sartuz plantillan eta hizkuntza-politikaren alorrean beharrezko diren ziurtagirien bitartez.

Eta adostasuna eta konpromisoa adierazteko, adierazpen hau sinatzen da,
.....-(e)n, 201...-(e)ko-aren ...-(e)an.

lzenpea eta enpresaren zigilua

III. ERANSKINA. LAN MERKATUAN EGOERARIK TXARRENEAN DAUDEN PERTSONEN KONTRATAZIOARI ETA GIZARTERATZE ETA LANERATZEARI DAGOKIENEZ HARTUTAKO BETEBEHAR ETA KONPROMISOEN PROTOKOLOA

Protokolo hau, kontratuen administrazio-baldintzen agirietan esanbidez barnean hartu ondoren, esanbidezko kontratu-xede gisa gizarteratzea eta laneratzea dutenei aplikatu zaie, enpresa esleipendunak _____ artikuluetan ezarritako betearazpen-baldintza aplikatuz lan-merkatuan egoerarik txarrenean dauden pertsonak kontratu behar dituztenean edota Jarraibide honen _____ artikuluko hauen bidez esleipen-irizpide gisa bere gain hartutako konpromisoaren bitartez ehuneko hori gehitzen denean bezalaxe:

1. Enpresa esleipendunak, kontratua beteko duen plantillaren barruan, Agirian ezarritako ehuneko bat erabili beharko du Agirian bertan deskribatutako profilen artean (ikus I. Eranskina).
2. Enpresa esleipendunak berariaz adierazi beharko du zenbat langilek jardungo duten kontratua gauzatzen, zenbat denboraz eta nolako lanaldiarekin —osoa ala partziala—, eta zehatz-mehatz eman beharko du kontratu-prestazioari eskainiko zaizkion orduen kopuru osoa, eta, horien gainean, gauzatzeko baldintza gisa adierazitako ehuneko earrri beharko du.
3. Adierazitako ehunekoa kontratua beteko duen enpresako plantillaren batez besteko kopuruarena izango da, eta erakunde lizitatzailerean proposamen teknikoan agertzen den lanaldi kopurua hartuko da erreferentzia gisa. Horrela, beraz, kontratazioen kopurua lanean emandako orduen kopuruarekiko proportzionala izango da, eta ehuneko hori ez da lanaldi murriztuak dituzten edo bajak eta ordezipenak egiten dituzten langileena izango.
4. Nolanahi ere, ezarritako ehunekoa betetzeko, zerbitzua emateko erabiltzen den denbora guztia eta langileek egindako lanaldien guztizko kopurua kalkulatu da.
5. Lizitazioa ebatzi eta kontratua formalizatu ondoren, enpresa esleipendunak, datei eta langile kopuruari dagokienez erabakitakoari jarraiki, langileak hautatu eta kontratatuko ditu.
6. Enpresa esleipendunak, betearazpen-baldintza honetan eta ondorengo erabakian ezarritako langile-kontratazioak egin eta hilabeteko epean, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du kontratuaz arduratutako sailean:

- a) Erakunde kontratistako erreferentziatzeko pertsona baten izendapena, betebeharrak sozialei lotutako gai guztietarako.
 - b) Hautatutako pertsonen buruzko datuak (Gizarte Segurantzako altaren eta lan-kontratuaren kopia eta kontratatutako kolektiboaren tipologiari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dira horretarako), kontratua beteko duen plantillaren barruan Udalaren laneratze eta lanerako laguntzako programetatik datozen pertsonak finkatutako ehunekoan edukitzeko betebeharrak betetzen dela bermatzearen.
 - c) Gizarteratzearen eta laneratzearen jarraipenerako ezarritako sistema.
7. Enpresek bidezko diziplina-ekintzei ekiteko duten ahalmena aparte utzi gabe, erakunde esleipendunaren bidezko sailari jakinarazteko betebeharrak ezartzen da, lanpostuen erreserba betetzeko. Kasu horretan eta luzaroko laneko baje kasuan, beste hautaketa bat egingo da erreserbatu beharreko lanpostua berriz ere betetzeko (arrestian adierazitako sistemari jarraiki).
 8. Gorabeheren kudeaketa. Enpresak langileen batekin lan-arazoak, diziplina-arazoak edo lanbide-gaitasunei lotutakoak detektatzen baditu, kontratuaz arduratutako Sailari jakinarazi beharko dio, hark bitartekotza-lanak egin edo esku har dezan, eta, hori guztia, enpresak lan-harremanen eremuan dituen esleipenak kaltetu gabe.
 9. Betebeharren subrogazioa. Enpresa esleipendunak kontratuaren zati baten betearazpena azpikontratatu badu, lanpostuen erreserbaren ondoriozko betebeharrak enpresa azpikontratatuak hartuko dute beren gain modu berean eta oso-osorik.
 10. Enpresa kontratistak klausula soziala betetzeko, laneratze-enpresa batekin, irabazi-asmorik gabeko erakunde batekin eta/edo enplegu-zentro berezi batekin azpikontratatu ahal izango du lanpostuen erreserba bere kabuz egiteak ekarriko lukeen kontratuaren zati proportzionalaren betearazpena.
 11. Eranskin honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzea (enpresa esleipendunak administrazio-baldintzen agirian txertatu ondoren) kontratua suntsitzeko arrazoia izango da, kontratazio-organoarentzat betearazpen-baldintza sozial horiek funtsezko kontratu-betebeharrak baitira. Gainera, zehapenak ezarri ahal izango dira.
 12. Kontratatu beharreko pertsonak zehaztu ondoren, laneratze-ibilbide indibidualaren etapa horri dagokion jarraipen-prozesua adostuko da pertsona horiekin, bidezkoa bada. Ibilbidearen jarraipena egitean, ez da nahasmendurik eragingo lan-ordutegian, eta jarraipen hori ez da kontratatutako pertsonaren bereizketa- edo estigmatizazio-faktore izango.
 13. Kontratazio-organoak kontratuaren betearazpena eta klausularen betetzea kontrolatu eta ebaluatzeko ahalmenak baliatuko ditu, eta adierazitako dokumentazioa edo bidezkotzat hartzen den beste bat bildu ahal izango du enpresa esleipendunetik. Hala ere, jarraipen-bilerak edo aldizkako ebaluazio-txostenak egin ahal izango ditu.

IV. ERANSKINA. EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDE EDO EKOLOGIKORAKO MATERIAL LAGUNGARRIAK

EUROPAKO BATZORDEA

KONTRATAZIO PUBLIKO EKOLOGIKORAKO PRODUKTUEN FITXAK

http://ec.europa.eu/environment/gpp/eu_gpp_criteria_en.htm

Txosten teknikoak eta erosketa berdeari lotutako irizpideak honako hauetarako:

Produktu eta zerbitzuetarako:

1. Kopietarako papera eta paper grafikoa.
2. Garbiketa-produktuak eta garbiketa-zerbitzuak.
3. Bulegoetako IKT ekipoak.
4. Eraikuntza.
5. Garraioa.
6. Altzariak.
7. Elektrizitatea.
8. Elikadura- eta catering-zerbitzuak.
9. Ehungintza produktuak.
10. Lorezaintzako produktu eta zerbitzuak.
11. Leihoak, kristalezko ateak eta sabai-leihoak.
12. Hormako panelak.
13. Isolamendu termikoa.
14. Zorurako baldosa zurrunak.
15. CHP (kogenerazioa).
16. Errepideen eraikuntza eta trafiko-seinaleak.
17. Argiteria publikoa eta semaforoak.
18. Barneko argiztapena.
19. Hondakin-uren azpiegiturak.
20. Barneko argiztapena.
21. Deskargako komun eta pixatokiak.
22. Komunetako txorrotak.
23. Irudiak inprimatzeko ekipoak (fotokopiagailuak, eskanerrak eta abar).
24. Osasunaren sektorean erabilitako ekipo elektriko eta elektronikoak.

IHOBE – EUSKO JAURLARITZA

EROSKETA PUBLIKO BERDERAKO PRODUKTU ETA ZERBITZUEN FITXAK

<http://www.ihobe.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=95390acd-6155-45cc-b339-1e2b3e4435ef>

Produktuen fitxak, ingurumen-irizpideak, erakunde hornitzaileen checklista eta lotutako jardunbide egokiak honako hauetarako:

Produktu eta zerbitzuetarako:

1. Papera.
2. Informatika-ekipoak, inprimagailuak.
3. Informatika-ekipoak, ordenagailuak.
4. Bulegoko altzariak.
5. Eraikinen garbiketa.
6. Ibilgailuak.
7. Ekitaldiak.
8. Lorezaintza.
9. Elikadura eta vendinga.
10. Elikadura iraunkorra.
11. Elikadura puntuala.
12. Mezularitza.
13. Argitalpenak.
14. Jantziak; laneko arropa.
15. Jantziak; osagarriak.
16. Jantziak; azpiko arropa.
17. Bidaiak.
18. Kontsultoretza-zerbitzuak.
19. Bulegoko materiala.
20. Material xurgatzailea.
21. Urbanizazio-obrak.
22. Eraikuntza.
23. Argiztapena.

ERREFERENTZIAZKO ARGITALPENAK

- Eskuratze ekologikoak. Kontratazio publiko ekologikoari buruzko eskuliburua (Adquisiciones ecológicas. Manual sobre contratación pública ecológica). 2. edizioa, Europako Batzordea.
http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/handbook_es.pdf
- Erosketa ekologikoak! Kontratazio publiko ekologikoa Europan. Laburpena (¡Compras ecológicas! Contratación pública ecológica en Europa. Resumen).
http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/handbook_summary_es.pdf
- Kontratazio eta erosketa publiko berdearen eskuliburu praktikoa, 2011. Euskal Administrazio Publikoak ezartzeko ereduak eta adibideak.